

Maírtín Ó Muilleoir

Belfasteko alkatea

«Madrilgo jarrera
ez da britainiarrek
gurekin izan
zutena»



- **Demokrazia zuzena** Donostiako Udalak arau organikoak aldatzeko eztabaidari ekingo dio
- **Uxue Alberdi Estibaritz** «Euli-giron emakumezko pertsonaien sinfonia bat dago»
- **Batz kooperatiba** Gehienak euskaldunak izanik, erabilera sustatzea helburu
- **Amaia Rodriguez**, Remelluri upategiko zuzendaria «Harrigarria da Arabako Errioxan zein gutxi ari garen ardoaren produkzio ekologikoan»



euskarabildua

AUKERA BERRIAK SAREAN

noiz

urriak 11 ostirala

non

Koldo Mitxelena
(Donostia)

ordua

09:00-14:00

*Oharra:

Plaza kopurua kontrolatu ahal
izateko, gomendagarria da
aurrez izena ematea

EGITARAUA

09:00 Aurkezpena

09:15 Bideo laburra

Esperientzia arrakastatsuak euskaraz

09:30 Ponentzia. **Mélanie Bourdaa** - Laboratoire Mica

Transmedia storytelling et audiovisuel: entre narration augmentée et marketing
Galderen txanda

10:15 Bideo laburra

Esperientzia arrakastatsuak euskaraz

10:30 Ponentzia. Teknologia: Ikus-entzunezkoetan aurrerapen teknologikoak zertan diren
Arantza del Pozo - Vicomtech-IK4

Euskarazko ikusentzunezko edukien azpitolaketak automatikoa

Igor Garcia - Vicomtech - IK4

Nora Barroso - EHU

adiUP: Info7 irratsaioaren albistegietan audio informazio semantikoaren
kudeaketa eleaniztuna burutzen duen sistema

Galderen txanda

11:15 Atsedena

11:45 Ponentzia. **Pablo Iglesias** - La Tuerka.net

Disputar la Democracia en los medios

Galderen txanda

12:30 Bideo laburra

Esperientzia arrakastatsuak euskaraz

12:45 Ponentzia. **Carles Solà** - Plataforma per la Llengua

Medios y redes. Nuevos retos en la comunicación sobre el catalán

Galderen txanda

13:30 Ponentzia. **Axier Lopez** - ARGIA

XX. mendeko kultura-porrotik handiena:

telebista. Itzali eta erdu sarera

Galderen txanda

Euskara eta
teknologia berriei
buruzko jardunaldia

Antolatzaileak

ametzagaña
OOO taldea

argia

iametza
interaktiboa

info+:

www.euskarabildua.com

Babesleak



Gipuzkoa
BERRIA



Laguntzaileak

aniza
komunikazio grafikoa

AZKUE
ANIZA

Deusto
Facultad de Ciencias Sociales y Humanas
Gobierno Vasco



eiken
Euskar Herriko Unibertsitatea

LANGUNE
Euskar Herriko Unibertsitatea

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA



Azaleko argazkia:
XABIER LETONA
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Salmenta eta harpidetza: Karlos Olasolo. Idazkaritza tekniko: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetza: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2013ko urriaren 6a, 2.385. zenbakia

ASTEKO GAIA

DEMOKRAZIA ZUZENA Donostia galdeketa sistemizatutako gertu. URKO APAOLAZA AVILA / 4

PERTSONAIA

AMAIA RODRIGUEZ HERNANDORENA: «Arabako Errioxan ez dago Txapeldunen Ligan jokatzeko ari den ardorik». MIEL A. ELUSTONDO / 10

GAIK

AUZOLAN ESPERIENTZIAK Pilotan taldeka jokatzeko Gasteizen. MARTIN VICIOSO / 15

IRITZIAREN LEIHOA

LUMAK ETA MOZORROAK JUNE FERNANDEZ / 16

IHIZTARI MADARIKATUAK ANUNTXI ARANA / 18

LUBAKI BERRIAK XABIER MENDIGUREN ELIZEGI / 19

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 17

TXANDAN Bigarrena. EDU ZELAIETA / 18

ERDIKO KAIERA

UXUE ALBERDI ESTIBARITZ: «Sinesgarritasunak eta zehaztasunak obsesionatu naute». ESTITXU EIZAGIRRE, GARBINE UBEDA / 20

GABRIELEEN LEKUA Arestirekiko zor historikoa kitatu asmoan. AINHOA MARIEZKURRENA / 24

LITERATURA ARITZ GALARRAGA / 26

MUSIKA JOXI UBEDA / 27

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 28

ALEA DONOSTIAKO ZINEMALDIA

- Ama-seme latinoak atzealde grisarekin.

GORKA BEREZIARTUA MITXELENA / 29

- Kritika eta publikoa bat etortzen direnean.

MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 29

IHESI ERREZIL (GIPUZKOA) Txoko ahaztuetan barrena.

GORKA AZKARATE / 30

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA JOXERRA AIZPURUA / 34

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 35

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

TERMOMETROA

MAÍRTÍN Ó MUILLEOIR: «Datozen 10 urteetan Belfasten 30 harresi bota nahi ditugu». XABIER LETONA / 37

EUSKARA LAN MUNDUAN Erabilera suspertzeko lider bila dabilta Batz-en. MARIJO DEOGRACIAS / 42

XABIER KALPARSORO 20 urteko zauri iluna. AXIER LOPEZ / 44

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL 'Cybersyn', Allende abiarazi nahi zuen Internet sozialista. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Donostia galdeketak sistematizatzeko gertu

Krisiak sistema politikoa auzitan jarri duen honetan, gero eta gehiago dira erakundeen erabakietan zuzenean parte hartzea eskatzen dutenak. Donostiako Udalak legegintzaldia amaitu aurretik bidea urratu nahi du arlo horretan. Arau organikoa aldatzeko asmoa du, partaidetza zuzena iraunkorra egin eta galdeketak antolatzeko. Lehenik eztabaida prozesua zabalduko du, urriaren 4an eta 5ean egingo diren jardunaldien bidez.

| URKO APAOLAZA AVILA |



MIREN BERASATEGI (CC BY-NC-SA)

Donostiako Udalak bost teknikariz osatutako partaidetza bulegoa du. Datozen hilabeteetan arlo horretan jauzi handia egingo duela iragarri du, baina aurretik eztabaida prozesu bat zabalduko du herritarrekin.

PARTAIDETZA ZUZENAZ hitz egiteko jardunaldiak antolatu ditu Donostiako Udalak urriaren 4an eta 5ean Miramar jauregian. Hainbat elkar-terko kideak, politikariak eta nazioarte mailan adituak izango dira bertan. Hizlari arituko da, esaterako, Martin Bülher Initiative & Referendum Instituteko kidea, Sui-tzako eredia azaltzeko, baita Fernan-do Pindado herri partaidetzan aditua ere. Jardunaldiei hasiera emateko Juan Karlos Izagirre Donostiako alkateak hitz egingo du. Hitzaldi horretan Donostiako Udalaren herri partaide-tza ereduaren ponentzia azalduko du Izagirrek. Funtsean, jardunaldi hauek prozesu zabal baten atarikoak izango dira. Herritarren parte hartzean “aurrerapauso erreala” emango dituela iraga-rri du Donostiako Udalak.

Uneon parte-hartzea sustatzeko langile eta baliabide ugari bideratzen duen hiriburua da Donostia eta erreferente izateko bokazioz eman nahi du hurrengo hilabeteetan demokra-zia zuzenerako jauzia.

Krisi ekonomikoak, murrizketek eta ustelke-ria kasuek egungo sistema politikoa auzitan jarri dute. Ez dira gutxi erreforma sakona eska-tzen dutenak, herritarrek zuzenean erabakitze-ko eskumena izan dezaten. 80ko hamarkadatik izandako geldialdiaren ondoren, Euskal Herrian erreferendumak eta herri galdeketa-kerik gero eta maizago antolatzen hasi dira berriz ere: zezenketek, hondakin bilketaz... Axier Jaka Goikoetxea Donostiako Bilduko Partaide-tza zinegotziaren ustez, baina, kontsultak oso egoera zehaztuetan egin izan dira, “gatazka sozial batek desitxuratuak”.

Donostiako Udalak mahai gainean jarriko du kontsultak eta herri ekimenak sistematiza-tzeko proposamena: “Nahi duguna da erabaki politikoak hartzeko erreminta bat gehiago iza-tea —dio Jakak—, baina erakundeen funtzionamenduan barneratuta, ez ez-ohiko fenomeno gisa”.

Auzoetan bultzada berria aurki

Bildu udal gobernura iritsi aurretik ere Donostian parte-hartzearen inguruan lan handia egin zuten kolore askotako alderdiek. 90eko hamarkadan zenbait udalerritan martxan jarri ziren lehenengo prozesu parte-hartzaileak, herritarrek aurrekontuez eztabaidatzeko esaterako, eta Donostia ere olatu horretan sartu zen. Besteak beste, legeak dioenari jarraituz, aholkularitza kontseilu sektorialak eta Gizarte Kontseilua sortu ziren, baita parte-hartze bulego bat ere. Bestalde, 2007an Herritarren Parte Hartzearen Arau

Donostiako Udalak arau organikoan parte-hartze zuzeneko prozedura zehatzak txertatzeko prestutasun osoa du, jardunaldietik ateratako ondorioen arabera

“Egingo dugun guztia izango da partaidetza sistema iraunkor bat sustatzeko eta instituzio eredia aldatzeko”

**Axier Jaka,
Donostiako Partaidetza zinegotzia**

Organiko berria onartu zen, Espainiako Estatuko hainbat hiritan bezalatsu.

Euskal Herriko beste hiriek ere kontseilue-tan oinarritu izan dute partaidetza. Bilbon, adi-bidez, barrutietako kontseiluen bidez izaten du

hartu emana Udalak herritarrekin. Kontseilu horietan, hauteskunde-entzuten arabera ordezkaritza politi-koa izaten da, baita barrutiko elkar-ter-eko ordezkariek ere, baina azkeneko hauek ez dute boto eskubiderik. Gas-teizen, lurraldekako Gizarte Etxe-erik garrantzia handia eman izan zaie; eta Baionan berriz, Tokiko Agenda 21-i loturik, Parte Hartze Hiritarraren Gutuna onartu zen 2010ean. EHUKo

Parte Hartz ikertaldeak 2008an argita-turiko azterlan baten arabera, batzordeak eta aholku kontseiluak dira udalerritan gehien era-biltzen diren parte-hartze tresnak. Ondoren daude Tokiko Agenda 21-aren bidez antolatzen diren foroak, eta azkenik herri asanblad-ek, kontsultak, kontzeju irekiek eta abar osatzen duten talde heterogeneo bat legoke.

Jakaren esanetan, Donostiako Udalean zeharkako gai gisa jorratu du Bilduk partaide-tzarena, iraunkortasuna helburu duela: “Gu sartu ginenean bulegoaren kapital tekniko guz-tia 2016ra bideratua zegoen, proiektu hori herritarrekin lantzeko ahaleginetan. Orduan zera esan genuen: egiten dugun guztia izango da partaidetza sistema iraunkor bat sustatzeko eta instituzio eredia eraldatzeko”.

Hala, udal sailetakozuzendariak gaian hez-teko dinamika hasi zuten bileren eta dokumen-tazioaren bidez, eta neurri ezberdinen artean, sail bakoitzean sozialki sentsibilizatutako per-sona erreferenteak —“funtzio publikoa zein den benetan ulertzen dutenak”— aukeratu zituzten, partaidetza udal osoan dibertsifika-tzeko.

Irekitako beste ildo bat auzoena da. 2011n martxan jarri zuten Auzo eta herriak Donostia indar-tzen ekimena; herritarren parte-hartze handia izan zuen prozesua hark. Geroztik udaleko zinegotzi eta zuzendariak maiztasunez bile-ra tematikoak egin dituzte auzo-tarrek.

Partaidetza garatzeko bidean hainbat auzo elkar-teren sorrera ere sustatu du Donostiako Udalak, baina aholkuaren eremuan egiten dute lan: “Gauza jakina da auzo elkar-terek ez dituztela auzotar guztiak ordezkatzen, batzuetan interes parti-kularrak dituzte, eta udal batek ezin ditu horiek defendatu, haustura soziala eragin bai-tezake, baina subjektu oso inportanteak dira”, dio zinegotziak.

Josu Larrinaga, EHUKo iraskalea:

“Parte-hartzearen unerik onena da Olentzerori gutuna bidaltzen diozunean”

EHUKo Parte Hartuz ikertaldeko kidea da Josu Larrinaga eta Donostiako jardunaldietan egingo den mahai-inguruan izango da.

Iraganean Euskal Herrian demokrazia zuzena praktikatu omen da...

Adibide historiko horiek komunitateari loturiko jendarteetan gertatzen dira, eta ez hainbeste indibiduoak kontuan hartzen duten jendarte modernoetan. Parte-hartzearen aldeko ekimenetan asko aipatzen dira batzarrak edo orain arriskuan dauden Arabako kontzeju irekiak. Horiek gizarte tradizionaleko erakundeak dira eta praktika nagusia izan da etxeak edo familiak izatea ahotsa. Baina noski, familia eredu bat izan daiteke autoritarioa. Lehen ere gauzak ez ziren miresgarriak.

Komunitateak zer garrantzi dauka honetan guztian?

Auzolana askotan aipatzen da. Gaur egungo auzolanak zerikusi gehiago dauka punk mugimenduaren *Do it yourself* (zerorrek egin) kontzeptuarekin. Interes berak dituztenak batzen dira, Donostiako Piratak adibidez. Baina auzolana da, agian zuretzako onuragarria ez den lan bat egitea komunitatearen alde. Gizarte modernoan komunitatea gelditzen da? Hori da kontua.

Suitzan galdeketeekin erabaki baztertzailleak hartu izan dira.

Azken aldian kontsultekin saltsa handia sortu da. Batzuek planteatu dute erremediorik ezean hori izatea irtenbidea, baina gero ikusi dugu arazo konplexuetan kontsulta zarata ere izan litekeela komunikazioa baino.

Hortaz, galdeketa antolatzeako orduan, zer da zure ustez lehenik eta behin aintzat hartu beharrekoa?

Aurretik egiten den kontakizuna galdeketa baino funtsezkoagoa da. Demokrazia zuzenaren momentua da proiektua oraindik definitu gabe dagoenean. Egitasmo urbanistikoetan, adibidez, proiektua egin eta gero jartzen da erakusketan; noski, jendeak zer esango du jakinduria zientifiko-teknikoz jantzitako totxo baten



ARGAZKI PRESS

aurrean... Kontakizunaren momentua parte hartzeko unerik onena da, Olentzerori gutuna bidaltzen diozunean.

Parte-hartze zuzenerako mekanismoak iraunkortu daitezke, Donostiako Udalak egin nahi duen moduan?

Sistematizatzea ondo dago, baina Donostiako Udalak hori egin dezake dagokion eskumenen markoan. Gaur egun asko hitz egiten da “maila anitzeko gobernantzaz”. Udal batek egin dezake politika oso ausarta parte-hartzearen inguruan, baina jendea zapuztuta senti liteke. Hori gertatu da Agenda 21ekin; udalak saiatu izan dira gauza asko egiten eta jendeak ikusi du arbola batzuk landatzea posible duela, baina AHTa zure herritik pasatzen denean ez dagoela zereginik.

Beraz...

Donostiakoa bihurtu liteke erreferentzia bat, baina adibide bat jarriko dizut. Eusko Jaurlaritzak onartutako Lurzoruaren Legeak parte hartzeko mekanismoak aurreikusten ditu eta Bilboko Udaleko Hirigintza Saila Ezker Batuaren menpe zegoenean, teknikariekin jardun ginen hori martxan jartzeko. Interesa sortu zuen, teknikariek ikusten zutelako euren lana erraztu egin zitekeela. Gero etorri zen Azkunaren gehiengo osoa eta ez genuen ezer gehiago jakin. Kultura politikoan aldaketarik ez badago, agintaren arabera izango da dena, baldin eta ez baduzu arautegi bat sortzen.

Orduan, herritarrek erabakitzeako gaitasun gehiago nahi badute, zein bide hartuko dute?

Gobernagarritasuna osatzen duten aparatuak zalan-tzan jartzen direnean, jendea “oldartu” egiten da parte-hartze gehiago eskatzeko. Politikariak beti esan dezake arautegi bat badagoela, baina duela bi urte Donostian uholdeekin gertatu zena pasa liteke, eta hori kontuan hartu behar da. Oldartze bidezko parte-hartzea asko praktikatu duen herri batean bizi gara, mundu guztiak daki gizarte mugimendu bat sortzen.

Hain justu Auzo Elkarteen Bilgunea sortu dute, auzogintzaz eta lan komunitarioaz hausnartzeko: “Azken helburua da etorkizunean auzo batzarrek erakunde publikoetan eragina izango duten erabakiak har ditzatela”. Dena den, erabaki asanbleario hori ez litzateke lotse-lea izango, auzo batzarrak ez baitira juridikoki horretarako osatutako organoak, udalaren onarpen politikoa izan arren. Epe laburrean

beste bultzada bat eman nahi diete auzoetan egiten diren bilkura horiei.

Galdeketa antolatzeako irizpideak aztergai

“Erremintak aztertzea ondo dago, baina inportanteena da zer eragin duten. Herritarrek benetan erabakitzen dute?”. Axier Jaka zinegotziaren galdera ez da erretorika hutsa, 2014an zehar arau organikoan parte-hartze zuzeneko

Suitza eta demokrazia zuzenaren kontraesanak

MUNDUKO DEMOKRAZIA garatuenetakotzat jo izan da Suitzako. Demokrazia zuzenaz hitz egiterakoan, herrialde hori hartu ohi da adibide. Suitzarrek XIX. mendetik dute euren agintariek onartutako legeak erreferendum bidez atzera botatzeko aukera eta proposatutako ekimenen bozketak ere aspaldikoak dira.

Urtean gutxienez lauzpabost erreferendum egiten dira herrialde helvetiarrean afera ugariren inguruan. Zenbait gai estrategikotan ezinbestekoa da erreferenduma egitea, eta gainerakoetan, federazio osoan 50.000 sinadura bildu behar dira galdeketa bidea irekitzeko. Horietan erabakitakoa loteslea da.

Herri gehienetan udal gobernua herritarren batzarra aukeratzen du eta zenbait kantoietan oraindik iraunten dute *landsgemeinde* edo lurralde asanbladak; legeak eta aurrekontuak onartzen dira horietan.

Erreferendumak deitzeko erraztasunak izaera prebentiboa dauka. Alderdiak nahiago izaten dute aurretik gaiak adostu gerora herritarrek atzera botatzeko arriskua izan baino. Bestetik, sistemaren iraupenerako suitzarren kultura politikoa nabar-

Suitzako Glaris kantoian egindako lurralde asanblada, garai bateko usadioei jarraituz.



WIKIPEDIA

prozedura zehatzak txertatzeko prestutasun osoa baitute, jardunaldietatik ateratako ondorioen arabera. Neurriak askotarikoak izan daitezke: herri kontsulta deitzeko baldintzak malgutzea, aurrekontuetan diru-partida finko bat ezartzea, “Partaidetza Zuzenerako Batzorde” iraunkor bat sortzea, funtzionarioen eginkizuna protokolarizatzea...

Baina aurretik galdera ugariri erantzun beharko diete, berariaz antolaturiko jardunaldietan: Gai estrategikoez soilik itaun ahal izango da? Hiri osorako galdeketa ala auzoetakoak ere bai? Zein subjektuk eman dezake botoa? Erabaki beharrekoa Gobernuaren ala Udalbatzaren eskumenekoa izango da? Herri-ekimenak aurkezteko baldintzak, sinadurak, egiaztatzeak, nola behar lukete? Eta quorumak?

Donostiako Udalak garrantzi handikotzat du herri kontsultak egiteko baldintzak egokiak izatea: “Ez dugu uste paradisurik aurkituko dugunik, gai gehienek motxila handia baitaramate bizkarrean, baina ez genuke galdeketa egingo herrita-

mendu du askok, Estatuaren ardura eurena ere badela sentitzen baitute.

Baina kontraesanak ere badaude. Bestela, nola uler liteke emakumeek 1971 urtera arte botoa emateko eskubiderik ez izatea? Azken urteetan lege xenofobo zenbait ere onartu dituzte herritarrek, eskuin-muturreko alderdiek proposatuta. Bestalde, 2011n etxean armak gorde ahal izatearen alde bozkatu zuten suitzarrek, eta berrikitan gizonzkoen derrigorrezko zerbitzu militarrekin segitzea erabiki dute.

Demokrazia zentzu zabalean hartuz gero, erabaki eta jarrera horiek zerikusi gutxi dute kultura politiko demokratikoarekin.

rrren eskubideak bermatu gabe: informazioa, eztabaida...”.

Nola betierekotu demokrazia zuzena?

Partaidetza zuzenak baina, baditu muga espezi-fikoagoak, legeak ezartzen dizkionak kasu. Espainiako 1985eko Toki Araubidearen arabera udalerri mailako kontsultak ezin dute lotesleak izan. Alegia, ez dira erreferendumak, herri kontsultak baizik. Erreferendum lotesleak Konstituzioa edo estatutuak aldatzeko baino ezin dira egin. Bestalde, edozertaz galde liteke, Ogasunaz izan ezik; herritarrek ezin dute ordenantza fiskalaz, aurrekontuez edo zergez erabakirik zuzenean hartu.

Beste zailtasun bat ere badago. Nola betierekotu sistema bat, lau urte behin gobernua aldatzeko aukera dagoenean? Zentzu horretan, Jakak garbi du arau organikoan egindako aldaketek ezingo dutela eredu berria

Donostiak eredugarri izan nahi du parte hartzean, batez ere demokrazia zuzena sistematizatzen hiriburu aintzindaria izan litekeelako

Arabako kontzeju irekiak, iragan asanblearioaren isla

IRAGANEAN demokrazia zuzena-
rekin zerikusia zuen zuzenbide-
rik izan zela dioenik bada. Maite
Lafourcade Paueko Unibertsita-
teko irakaslearen esanetan XVII.
mendeko Lapurdin etxeko jau-
nek komunitatean hartzen ei-
zituzten erabakiak. Pablo Sastre
idazleak, bestalde, azkeneko saia-
kera liburuan dio Goi Erdi
Aroan erresumarik ez zegoenean
herri-batzarrak zirela erabakigu-
neak: “Komunitateari zegozkion
arazoak eta auziak bertan elka-
rrekin eta nola-halako igualda-
dean erresolbitzen ziren”.



Albeiz herria, Arabako Lautadan.

Arabako kontzejuek antzinako sistema horren
ondorengotzat dute euren burua. Lurralde osoan 336
kontzeju daude —ia guztiak kontzeju irekiak dira— eta
35.000 lagun bizi dira. Kontzeju irekietan herritarrek
hartzen dituzte erabaki guztiak, eta hauteskunde bidez
aukeratutako batzorde eta presidentek erabaki horiek
betetzen dituzte. Preseski, aurrean izango dira bozketak,
azaroko azkeneko igandean —herritarren %80ak parte
hartzen du batez beste aukeraketan—.

Javier Argote Arabako Kontzejuen Elkarteko
lehendakariak dioenez herritarren partaidetza gaiaren
arabera da; eztabaida sortzen duen auziren bat tar-
tean bada, jendeak kontzejura jotzen du: “Erabakitze-
ko gaitasuna izateak jendea motibatu egiten du”. Gaiak

eztabaidatzeko unean lehen-
dakariaren figura oso inportan-
tea da, normalean berari iristen
baitzaio informazioa Aldunditik
edo Udaletik, hori ondo igortzen
jakin behar du. Kasu batzuetan
teknikariak ere joaten dira azal-
penak ematera, eta gauzak garbi
ez badaude, hurrengo aldirako
uzten da erabakia.

Argoteren ustez, zenbait
herrietako auzo edo elizateetan
kontzeju irekien eredia aplikaga-
rria da, udalerrri osorako diren
eskumenak errespetatuz. Dena

den, tokiko erakunde hauen etorkizuna zalantzan
dago, aurki Espainiako Legebiltzarrean tokiko admi-
nistrazioen arrazionalizazio Legea onartuko baitute:
“Arriskua handia da, ez soilik kontzejuentzat, baita
udalerrri txikientzat ere” dio Argotek.

4.000 lagun auzolanean urtero

Kontzejuetan herritarren parte-hartzea ez da erabakie-
tara mugatzen. Urtero lauzpabost *vereda* edo auzolan
egiten dituzte, ez soilik bideak edo askak garbitzeko,
baita obra txikiak egiteko ere. Zenbait kontzejutan
ordenantza bidez dute arautua auzolana eta gutxi
batzuetan derrigorrezkoa da parte-hartzea, isunik jaso
nahi ez bada. Araban 3.000 eta 4.000 lagun artean ari-
tzen dira urtean halako auzolanetan.

“blindatu”, baina bere ustez behin pauso
batzuk emanda “atzera egitea asko kostatzen
da, oposizioa handiagoa da eta herritarrek
boteretuago daude”.

Nolanahi ere, Donostiak eredu garri izan
nahi du parte hartzearen gaian, batez ere

demokrazia zuzena sistematizatzen duen hiri-
buru aitzindaria izan litekeelako. Kasu hone-
tan, tamainak asko esan nahi baitu: “Herri txi-
kietan parte-hartze zuzeneko mekanismoak ez
dira ezinbesteko, herri batzarrak eta halako
guneekin populazioaren espektro handi baten-
gana iritsi zaitezke; baina 185.000 biztanleko
hiriburu batean hori ezinezkoa da, jende-zoko
handiak geratzen dira albo batean”. Horrega-
tik, Jakaren ustez, funtsezkoa da partaidetza
unibertsalizatzeko mekanismoak sortzea.

Arau organikoa aldatzeko Donostiako udal
gobernuak ezinbesteko du beste talde politiko-
en adostasuna, eta Miramarren egingo diren
jardunaldietara joateko gonbidapena badute
jadanik. Bien bitartean, azaroaren amaieran
Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako
desanexio erreferenduma egingo dute Igeldon
—Donostiako udalak neutraltasuna azaldu du—.
Jakak ziurtatu du erreferendumak eta partaide-
tza zuzenari buruzko hausnarketak
denboran bat egin izana kasualitate
hutsa dela, baina onartu du Igeldo-
koak akuilu lana egin dezakeela
eztabaida animatzeko. ■



MARTUTENEO AUZO ELKARTEA (CC BY-NC-SA)




“Auzo eta herriak Donostia indartzeko” prozesua 2011n Martutenen.
Epe laburrean beste bultzada bat izango dute bilera horiek.

EUSKAL OROIGARRIA

MAKILA

eskaintza berezia



- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak
- Iñaki Alberdik eginak



 **argia**

Eskaerak:

Zirkuitu Ibilbidea, 2 - Industrialdea, 15
20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
© 943 371 545 - denda@argia.com

www.argia.com/denda/makilak



AMAIA RODRIGUEZ HERNANDORENA

«Arabako Errioxan ez dago Txapeldunen Liga jokatzeko ari den ardorik»

Remellurik definitzen du, partez, Amaia Rodriguez Hernandorena. Gurasoek ireki zuten bideari seme-alabek eusten diote, leku guztiz berezian. X. mendetik hona giza aztarnak izan dira bertan, monje jeronimoak etxaldean kokatu zirenetik. Nekropolia, kapera, Toloñoako monasterioaren aztarna, mahatsez eta mahastiz, zoragarri. Ez alferrik, paradisia margotu zuen Remellurin Bixente Ameztoyk.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero

Irun aldean dituzu sustraiak, baina Arabako Errioxan, Bastidan, familiarena duzue Remelluri. 1968an etorri ziren gure gurasoak hona. Beste hainbat euskaldunek bezala, etxetxo-
ren bat nahi zuten, udarako, beren seme-alabak hartuta. Lekuaren edertasuna ederretsi zuten, altueran eta, aldi berean, babestua, naturak gainezka egiten zuen tokia irudituzitzaien. Gainera, antzinako aztarnak ageri ziren bertan. Eta, hala ere, abandonatuta zegoen lekua! Mahastiak berriz, bereziak zitzaizkien. Jendea hirietara joaten ari zen garaia zen, exodo hura, Gasteizera-eta. Eta utzita zegoen han. Horrela, gurasoek Remelluri honetako etxea erosi zuten lehenengo, lur zati batekin, eta harrezkero, lekua babes-
teko helburua hartu zuten, zibilizazioaren eta mundu modernoaren presioaren kontra. Garaia aurreratu zitzaizkion, nolabait, gaur egun jendea hiritik alde egiteko amorratzen dago-eta.

Hona etorri ziren garaian, mahastietarako zale-
tasunik bazuten zure gurasoek?

Batere ez! Baina horixe gertatzen da Europa-
ko leku askotan, eta AEBetan ere. Ardogin-
tzari lotutako goi mailako proiektu asko, hirietatik joandako gazte intelektualek abiarazi dituzte. Nekazari kulturatik kanpoko jendea da. Gure gurasoak ere zer ziren, bada, jendea kultura, irakurria, historia zaleak. Eta ez nekazari ez ardogle izanagatik ere, Frantzia-
ko ardo onenak ezagutzen zituzten. Proiek-

tua egin eta beren enteleguaren laguntzaz, oraingo Remelluri hau egin zuten.

Eta bertan ari zara zu orain. Eusko Jaurlaritzako Kultura sailean zuzendari kargua bete zenuen garai batean.

Bai, egin genuen zer edo zer. Mari Karmen Garmendia zen sailburu garai hartan. Niri Txato Agirrerekin lan egitea gertatu zitzaidan, lan polita egin genuela uste dut, baina nire bizitzan oso lan txikia izan da. Politikan ari

NORTASUN AGIRIA

Amaia Rodriguez Hernandorena (Irun, 1958). Biologia ikasketak egin zituen Euskal Herriko Unibertsitatean, Sorbonan eta Oxforden. Utzia du garai hartan ireki zuten bidea, hitzaldi, liburu eta ikerketa. Eusko Jaurlaritzako Kultura saileko Kultura Sortu eta Zabaltzeko zuzendari kargua bete zuen 1995etik 1999ra, eta Remelluriko etxaldea zuzentzen du joan den aspaldian, bertan diren elementu guztiak koordinatzen ditu, eta dena delako lekutik –Oartzundik nahiz Bilbotik, Madriletik edo Hong-Kongetik– etortzen direnei atea ireki eta kasu egiten die: “Gure egia transmititzeko”. Jaime Rodriguez Salis eta Amaia Hernandorenaren alaba da. Liberalak, batere ez abertzaleak aitaren familian. Abertzale peto-petoak amaren aldetik, Teodoro Hernandorena politikari eta kultur eragile ezagunaren alabaren adarretik. Xabier Goena du senarra, eta Amaia eta Martin seme-alabak. Irun eta Bastida artean bizi dira.





nintzen, kudeaketan, ez nintzen artista ez sortzaile, haiei laguntzea zen nire lana. Diru-sail handiena konprometituta zegoen –agian, gure gustukoak ez ziren proiektuetan–, eta gainerako diru apurra sortzaileen artean banatzen ibiltzea izugarritzko frustrazioa zitzaigun. Ahal genuena egin genuen. Sentsazio mikatza! Herri honetan hainbeste sortzaile lanean ari zela ikusi, eta politikariak hain galduta ibiltzea, erabaki okerrak hartzen askotan... Izugarria!

Gestio publikoan jardun zenuen, enpresa pribatuan ari zara...

Biek ere koskak dituzte. Bakoitzak bereak. Gure egoeran, enpresa pribatuek ondo funtzionatzeko ahalegina egiten dute, bidea aurkitzen dute. Kultur munduko enpresa eta proiektu publiko askok berriz, porrot egin dute, eta porrot egiten ari dira behin eta berrir, gainera. Politikarien artean sortzen diren tentsio eta adostasun eza izango da arrazoa, edo ez dakit, bada, nik!

Alderdien interesak?

Baina zer da “alderdiaren interesa”? Zer da hori? Beren lagunei laguntzeko lauzpabost eroren interesa? Ez dira konturatzen zerbitzu publikoa ematen ari direla, eman behar dutela? Alderdiaren interesak ez du balio! Oraindik horrela ibili beharrak harrigarria irudi du, baina horrela gabiltza.

Pentsamendua hori duzula, ulertzekoa da zuk lau urte besterik ez egitea politikan.

Lau urte politikan, bota egin gintuztelako. Guk ez genuen esan: “Nahikoa egin dugu, bagoaz!”. Ez, ez. Garai hartan nahiko tentsio sortu genuen goi mailan. Txato Agirrek garai hartan esaten eta egiten zituen zenbait gauza alderdiak

Kolore eztanda

“Gero eta gehiago dator jendea Errioxa alde honetara uzta garaian, kolore bila. Batzuk irailen etorri ohi dira, kolore gorri, gorrixka, okreen bila, baina iraila goizegi da horretarako. Urriaren amaieratik azaro amaiera bitartea da kolore festa hori ikusteko garaia, mahatsa bilduta dagoenean, hostoen oxidazio prozesua hasten denean. Orduantxe bai, kolorea hemen! Zoragarria”.

ez zituen begi onez ikusten. Ez genuen jakin zer gertatu zen guk segitzeko aukerarik ez izateko, baina seguru nago baten batek behatzez seinalatu gintuela, eta kanpora! Nola izan zen ez dut inoiz seguru jakin... Dena dela, niretzat ohore handia izan zen kargu hura betetzeko aukera ematea niri, eta ohore ikaragarria, eza-gutu nuen jende hura ezagutzea, sortzaile jende autentikoa, benetakoa. Altxorra! Alde horretatik, pribilegiatua sentitu nintzen. Artistekin egotea, haien lana ezagutzea... Euskal Herrian batera eta bestera asko mugitu nintzen, eta hori dena oso aberasgarria izan zitzaidan, eta hala ere, frustrazioa: “Egin dugu, ibili gara, baina zer lortu dugu? Zertan lagundu diogu artista jende honi?”. Pena horixe!

Politikan –edo administrazioan, nahiago baduzu– egindako sartu-irten hura hor da, baina zu, izatez, Biologia ikasketak eginga zara. Batere lagundu dizu horrek Remelluriko lanean?

Lagunagarria izan da, zalantzarik gabe. Biologia ikasketak egin nituelako nago hemen, neurri batean behintzat. Lurra, ura, klimatologia... ez zaizkit gai arrotzak. Ingalaterran egin nuen doktoregoa, baina aurreko bederatzi urteak Remellurin bertan eman nituen, biologo teknikari, anaia Telmorekin batera. Lurra, nekazaritza, mahastien prozesuak aztertzen genituen. Biologia ikasketei esker izan nintzen horretarako gai, bestela ezin izango nuen lan hura egin. Egia esan, asko ikasi nuen garai hartan.

Baliabide naturalak erabiltzen dituzue Remellurin, berealdiko garrantzia ematen diozue horri. 70eko hamarkadan zenbait ekoizlek gai kimikoak bazter uztea erabaki zuten. Bide naturalagoak, ekologikoagoak nahi zituzten. Berrogei urte joan dira harrezkero, eta gaur egun, balia-

bideak eta metodologiak lagun ditugula, ez daukagu aitzakiarik bide horri ez segitzeko. Zorionez, gure gurasoek –ardogintzan aditu ez izanagatik ere– ez zuten mahastietan zikin-erarik sartu nahi, lehengo tradizio zaharrari lotu zitzaizkion, modu intuitiboan, eta guri dagokigunez, bigarren belaunaldikoak garenoi, era kontziente, profesional eta zientifikoan aritzea dagokigu. Lan ekologikoa egiten dugu, guztiz. Dagozkigun kontrolak betetzen ditugu, ziurtagiriak eta gainerakoak. Harrigarria da, hala ere, Arabako Errioxan zein gutxi garen ardoaren produkzio ekologikoan ari garenek. Hiruzpailau besterik ez gara, eta harrigarria zait.

Horrek are bereziago egiten du Remelluri...

Balio erantsia ematen dio gure proiektuari. Gure bezeroak ordaintzen du egiten dugun lana, badaki lan egiteko modu hau garestiagoa dela, baina prest dago ordaintzeko. Hemen, nekazari gehienek upategi handiei saltzen diete mahatsa, ez dute ardoa egiteko prozesua kontrolatzen, balio erantsirik ez du haien lanak eta, nire ustez, salduta daude, galduta, merkatuak ezartzen dien prezioaren menpe bizi dira, eta prezioa gero eta baxuagoa denean, ezinezkoa da nekazaritza garbia egitea, bide ekologikoa ezinezkoa da. Zer egiten dute, orduan? Kimikaren bidetik, intentsibotik jotzen dute, gero eta gehiago produzitzen dute, gero eta merkeago...

Badago era horretara ardo ona egiterik?

Ez, ez da posible. Oraindik jendea ez da konturatu, baina konturatuko da. Urteak igaroko dira, ordea, eta jendeak ulertuko du, informatuko da, gai kimikoak erabiltzea ez dela ona, zapo aldetik ez ezik, osasunari dagokionez ere. Norberak nahi duena jan eta edan lezake, norberak ikusiko du, baina guk ikusten dugunez, jendea ez dago informatuta, eta, horregatik, gure lana hori ere badela uste dugu, jendeak jakin dezan, jaten eta edaten duguna ez ezik, gure inguruko zuhaitzak eta intsek-

Bixente

“Bixentek Haron zuen anaia, Luis, upategi batean saltzaile lanean. Haren bidez heldu zen Bixente hona, Luis eta Rosita –beraren emaztea– oso etxeakoak genituen-eta. Bixenteri asko gustatu zitzaion Remelluriko paisaia. Gure gurasoek halako ideia bota zioten, zer edo zer bertan margotzeko, eta Bixentek baietz: ‘Baina presiorik gabe!’. Eta halaxe utzi zuten, askatasun osoan, nahi zuena egin zezan. Eta Remelluriko saindutezia eta paradisua egin zituen bertako kaperan. Liburua egin zen eta jendea ikustera etorri ohi da. Hileko lehenengo larunbatetan, eliza irekitzen dugu, eguerdian”.

tuak ere gure bizitzaren parte direla, eta gai kimikoak erabiltzen ditugunean inguruari kalte egiten ari garela. Horretaz ere pentsatu behar dugu, eta bezeroak ere pentsa dezan, jakin dezan, saiatzen gara gu.

Zer esango ote luke zuen aitona Teodoro Hernandorenak ikusiko balu euskara ez dela ageri Remelluriren gainean egina duzuen museoan?

Hura bizi balitz, dagoeneko etiketak euskaraz izango genituen. Gainditu gabeko ikasgai horietako bat da. Aitonak arrazoi izango zuen. Bestalde, bisitari euskaldun askorik ez dugu jasotzen hemen, eta datozenek ere ez dute presio aski egiten. Esku-orriak bai, euskaraz ere baditugu. Web ari bai, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Hori gustatuko zitzaion aitona Teodorori. Baina esaten dizut, aitona bizi balitz, museoan ere euskaraz izango genituzke azalpenak. Oso euskaltzalea zen, burugogorra eta ausardia handikoa. Urtero etortzen zen hona, ahal zuenean. Udan, udazkenean, egun batzuk ematen zituen hemen, Toloñora pare bat aldiz igoko zen, ibilaldiak egingo zituen mahastietan barrena... Ardoa egiteari, berriz, ez zion askorik erreparatzen, gauzarik normalena iruditzen zitzaion. Naturari begira bizi zen hura hemen.

Zer du Remellurik horren deigarri izateko?

“Deigarri” da, bai, zoritxarrez.

Zoritxarrez?

Bai, leku berezizat duelako jendeak. Eta azken finean, natura da bertan nagusi, leku garbia da, isila, ibilgailurik ez dabil... “Zoritxarrez” esan dut, inguru honetan era honetako askoz leku gehiago izan beharko genituzkeelako. Hemen dagoen joera beste bat da, ordea: pretentsio handiko lanak nahi izaten dira, industrialagoak. Guk geure honetan jarraitzeko asmoa eta nahia ditugu, haxe da gure estiloa, gure lana, horrela mantendu nahi dugu hau.

MARITXU JATETXEA

© 943 399 062 / 943 399224

Euskadi Etorbidea, 13 / Trintxerpe
Pasai San Pedro (Gipuzkoa)

www.restaurantemaritxu.com

- Era guztietako itsaskiak, etxeako haztegikoak
- Arraina plantxan eta labean
- Gomendatuak: itsaski parrillada, zapoa saltsan eta txerrikumea

/ Eguneako menua / Karta / Taldeentzako menu bereziak



Santa Sabina

Erremelluriko sainduak margotu zituen Bixente Ameztoyk. Etxeko- en aurpegiak eman zizkien delako sainduei. Amaiaren aurpegi iru- dia eman zion Santa Sabinari. "Neu naiz, bai. Bat dator nire izateko moduarekin. Kalkutako Sor Teresa esaten didate etxean. 'Beti lanean, beti lanean'. Santa Sabina bi bizitza egiten zituen emaku- mea zen: egunez, etxean, erromatarrekin bizi zen; gauez, gaixoak zaintzera joan ohi zen. Bi mundu ditu pertsonaia horrek, eta guttiz identifikatzen naiz berarekin".



Eltziegon Frank Gehryk diseinatutako upategia zeharo bestelakoa da.

Zer esango dizut, bada? Guk ez genukeen sekula horrelakorik egingo. Ez genuke horre- la denda handirik, ez hotel aberatsik. Ez dago gure lehentasunen artean. Gainera, ez dugu horretarako denborarik ere. Nahiko lan badugu gure ehun hektareak zaintzen, landa- re eta animaliak begiratzen, ardoa egiten eta saltzen, bisitariak hartzen...

Gehry aipatu dudanez gero, galdera: Jaurlariz- tan zinen garaian Gehryren beste lan bat, ez nolanahikoa, egiten ari ziren: Bilboko Guggen- heim Museoa.

Bai.

Horrek eramaten zituen diruak.

Bai. Mari Karmen Garmendia sailburu izan aurretik, Joseba Arregi izan zen karguan, eta gu iritsi ginenerako konpromiso guztiak sinatuta zeuden. Joseba Zulaika antropologoak lan han- dia egin zuen haren inguruan. Erreferente bat.

Jaurlaritzan ez zuten gogo onez hartu Zulaika- ren *Crónica de una seducción – El museo Guggen- heim de Bilbao* (Sedukzio baten kronika), Bilboko Guggenheimen inguruko lana.

Ez...

Laster da mahats-bilketa...

Laster, bai. Biltzen hasi aurreko hilabetean, mahatsari jarraipena egiten hasten gara, azu- krea kontrolatzen, haren ondutasun maila. Egunak hurbildu ahala, gero eta neurketa zehatzagoak egin behar izaten ditugu, ez azu- krea kontrolatzeko, mahatsaren azala azter- tzeke baizik. Izan ere, gurean, Bordeleko sis- temaren barruan, ardoaren kalitatea erabakitzen duten elementu guztiak azalean daude. Barrukoa, azukrea eta ura besterik ez da, ez du halako garrantzirik. Benetako garrantzia azalak du, azalak gordetzen duena.

"Bordeleko sistema"...

Ardoaren atzean

"Momentu bakoitzak bere edaria du. Batean, garagardo hotza hartuko duzu. Bestean, urteko ardoa Arabako Errioxako herri bateko terrazan. Beste batean, erreserba, halako ospakizun berezian. Kontua da jakitea nor dagoen produktuaren atzean, eta hura erosten dugunean, nor ari garen saritzen. Mota bateko edo besteko botila aukeratu, kontziente izan behar dugu zertan oinarritzen garen ekoizle baten edo beste baten alde egiteko".

Ardoa egiteko modua, metodoa. Hemen eta munduan, Italian, Kalifornian eta beste lekuetan, Bordeleko sistema da bakarra, ardo gaztea ardo konplexu egiten laguntzen duena, oxigenoa upelen artean sartzea eta beste. Sis- tema ez da aldatuko, ez dagoelako besterik, hala izan behar du, eta hala da... Oraingoz, Bordelekoak, Borgoñakoak eta horiek ari dira Txapeldunen Liga jokatzeko, ez gu. Arabako Errioxan ez dago Txapeldunen Liga jokatzeko ari den ardorik. Beharbada, frantziarrek beza- la egiten badugu –berrehun urte, hirurehun urte itxaron–, eta gauzak ondo egiten baditu- gu, Txapeldunen Liga jokatu dugu, agian! Momentuz, ez. Denbora behar dugu.

Berrehun, hirurehun urte, horratik!

Mahatsondoak adina behar du; norberaren jakituriak berriz, bizpahiru belaunaldiren jakintza. Denbora da. Teknikaririk buruargie- na etorrita ere, proiekturik bikainena eginda ere, dirua eta etnologorik onena... Eta zer? Deus ez. Denbora behar da. Berrogei, berro- geita hamar urte behar dituzu, gutxienez, ardo on bat egiten hasteko. Ardo ona, ez Txapeldunen Ligakoa.

Hemen orde, bada mahatsondo zaharrik, bai Remellurin, bai Arabako Errioxan, oro har.

Bada, baina gutxi. 60 eta 70eko hamarkade- tan sekulako astakeriak egin ziren. Moderni- zazioa zen orduan ere, eta mahasti zaharrak kendu zituzten, eta terrazak, eta garnatxa, eta... Modernizatu egin behar omen zen, era intentsiboan jardun. Baina mahats horre- kin ez dago ardo ona egiterik, pentsatu ere ez. Eta horregatik, guk atzera berriz hasi behar izan dugu. Horregatik, gure garaiko proiektu enblematikoak –izan

Artadi, izan Benjamin Romea, izan gu...– gazteen eskutik etorri dira, 40, 50 urteko jendea da, bestelako sentsibiltatea duena. ■



AUZOLAN ESPERIENTZIAK

Pilotan taldeka jokatzeko da Gasteizen

2008an Gasteizko Alde Zaharreko San Jose udal pilotalekua erabat utzita zegoen. Bizilagunak batu eta euren kabuz berreskuratzeko erabakia hartu zuten, auzolanean. Hori irudikatu nahian, kirol guneari izen berria eman zioten: Auzolana Pilotalekua. Gaur egun, Txapa Ahotsa asanblada arduratzen da frontoia behar bezala mantentzeaz eta txandak banatzeaz.

| MARTIN VICIOSO |

UDABERRIKO EKAITZEK San Jose pilotalekuaren estalkia hondatu zuten 2007an. Urtebetez, Gasteizko Alde Zaharreko bizilagunek ezbeharrak konpon zitzaizkien eskatu zioten Udalari. Baina erantzunak —edo erantzun ezak— ez zituen auzokideak ase. Inguruko elkarteek eta herritarrek elkartzeko erabaki zuten egoerari buruz hausnartzeko. Bertatik sortu zuten Txapa Ahotsa asanblada, frontoia auzolanean berreskuratzeko eta kudeatzeko zuen taldea.

Obrak egin ahal izateko finantziarioa eta babesa auzoko eragileek eta herritarrek eman zuten gehienbat. Besteak beste, teiletan konpondu, euriteek izorratutako zorua altxatu, frontoi osoa margotu eta paretak berdinu behar izan zituzten. Hilabete gutxiro lana izan zen, eta aurtengo ekainean bost urte bete dira Auzolana Pilotalekua berriro ireki zutenetik. Ordutik, erabili nahi duenaren eskura geratu da. Hiru hilean behineko asanbladetan erabilera eta garbiketa txandak banatzen dituzte. Halaber, pilotarekin zerikusia duten bestelako jarduerak ere egiten dira Auzolana Pilotalekuan. Adibidez, Txapa Ahotsak berak antolatutako umeentzako pilota ikastaroak.

Pilotalekuak Alde Zaharreko elementu garrantzitsu bilakatu nahi du. Horregatik, asanbladako kideek eta inguruko beste elkarte eta taldeek ekintzak antolatzen dituzte bertan. Esaterako, frontoiaren urteurrena ospatzeko ekitaldi bereziak egin dituzte, auzoko festak baliatuz. Hala nola, kalejira, bertso saioak eta auzokideen arteko lagunarteko partidak jokatu dira.

Hiru hilean behineko asanbladetan erabilera eta garbiketa txandak banatzen dituzte. Umeentzako pilota ikastaroak ere antolatzen dira



Zailtasunak zailtasun, aurrera

Asanbladako kideek hasieratik salatu dute Udalak erakutsi duen jarrera. Moldatze lanak bukatzean, Txapa Ahotsak taldeko kideek pilotalekuarekiko eta auzoarekiko instituzioen “utzikeria” salatu zuten. Udalaren ardurapeko instalazioa izan arren, garai batean ez zuen berreskuratze lanetan parte hartu —ez ekonomikoki, ezta obretan laguntzen ere— eta gaur egun ere ez ditu mantentze lanetarako beharrezkoak diren gastuak bere gain hartzen.

Dena den, gasteiztarrek erakutsi dute herritarrak elkartzeko, auzolanean, proiektuak aurrera eraman daitezkeela eta jarraipena eman ahal zaiela. Haien hitzetan, “aldarrikapenetik ekintzara” pasa ziren, eta oztopoak oztopo Gasteizko Alde Zaharrak badu bere pilotalekua. Kasu honetan, urtebete blokeatuta zezan arazoari erantzun erraz bezain eraginkorra eman zaio elkarlanean. Halakoe-tan, asanbladakoek nabarmendu dute “auzoaren beharrak asetzeko antolakuntzak duen indarra”.

Auzolana Pilotalekuan behintzat, esku-pilota taldekako kirola izan daitekeela frogatu dute Txapa Ahotsa asanbladako kideek. ■





**June
Fernández**



KAZETARIA

Lumak eta mozorroak

HOMOFOBIAREN eta lesbofobiaren adierazle leuna dugu lumafobia: “Nik homosexualak errespetatzen ditut, baina hain esajeratuak diren maritxu horiek gogaitzen naute”. Edota: “Beitu zein mari-mutil den neska hori. Ezin al du lesbiana eta femeninoa izan?”.

Askok diote luma ez dela naturala, mozorroa dela, armairutik atera diren gay eta lesbianek euren homosexualitatea adierazteko behar gehiegizkoa daukatela. Maritxuegiak direla, mari-mutilegiak. Nabarmenegiak. Nork epaitzen du zenbat luma den gehiegizkoa? Gizarte heterosexistak, jakina. Antza, sexu aniztasuna onartzen –toleratzen– da, baina beti ere euren generoko pertsonak desio eta maite dituztenak heteroarauean “integratzen” badira: monogamia aukeratu, familia nuklearra sortu, kapitalismoaren eta patriarkatuaren arauak bete. Luma ateratzen duten pertsonen euren diferentzia, arau horien apurketa, argi eta garbi uzten dute. Homosexualitatea onartzen da, nabarmena ez bada. “Nork bere etxean nahi duena egin dezala” esatera gu armairuan giltzapetzeko saiakera besterik ez da.

Askok diote luma ez dela naturala, mozorroa dela, armairutik atera diren gay eta lesbianek euren homosexualitatea adierazteko behar gehiegizkoa daukatela. Maritxuegiak direla, mari-mutilegiak. Nabarmenegiak. Nork epaitzen du zenbat luma den gehiegizkoa?

Nire lagun lesbiana batek logela bat erreserbatu behar zuen Bartzelonan. Neskalagunarekin zihoala esan zuenean, jabearen erantzuna “ondo, baina diskrezioz jokatu” izan zen. Nire lagunak pikturara bidali zuen eta bere blogean gertakaria kontatu zuen, baita bidaia horretan kalean musukatzen ari zirela bizitako eraso ugari kontatu ere. Neska batek eurengana jo eta “hori azken boladan ikusi dudak keinurik apurtzaileena da” esanez, txalotu zituen. Nire lagunaren erantzuna: “Gure muxuak apurtzaileak direla-

ko ustea gizarte moderno honen osasun tamalgarriaren adierazle da”.

Bestalde, lumaren kontura itzuliz, gizonen euren maskulinitatea erlaxatzen dutenean (sentimenduak adieraziz, esaterako) maiz kuadrilaren epaia eta kontrol homofobia jasotzen dute. Era berean, nik ilea moztu eta takioiak edo makillajea erabiltzeari utzi diodanetik, hainbatek esan didate orain soropilaren itxura daukadala. Horrek frogatzen du luma baino, feminitatea dela egiazko mozorroa, feminitatearen artifizioak alde batera uztea eta ni neuzatea lesbianismoaren adierazle bezala ulertzen baita.

AEBetan *queer* (ingelesez, *arraro*) mugimendua jaio zen, normalkuntzaren bidea onartzen ez zuen LGTB mugimenduen sektoreak bultzatua. Maritxu, mari-mutil eta pertsona trans-en kontra erabiltzen zen iraina mugimendu honek bereganatu eta aldarri bihurtu zuen. Aldi berean, *queer* teoriak diskurtso feminista berri eta aberastu zuen. Judith Butler filosofoak, esaterako, “genero performatibitate”ren kontzeptua garatu zuen. Laburbilduz, haur bat medikuak “neskatila/mutikoa izango da” dioten momentutik aurrera gizarteak inposatzen duen “emakume” edo “gizon” ereduak baldintzatuta haziko da. Gero, familiak, lagun taldeak edota komunikabideek argi utziko diote zer den bere generorako proposa, eta “performance”a zuzen antzeztzen ez badu, presioak, epaiak eta irainak jasoko ditu. Esparru lesbofeministetan *drag king* teknika erabiltzen da generoarekin jolasteko, deseraikitze, ustez naturalak diren feminitatea zein maskulinitatea jantzi eta erantzi ditzakegun mozorroak –Butlerrek dioten bezala– *performance* hutsak direla frogatzeko: emakumeak gizon bihurtzen dira egun batez, bai fisikoa eraldatuz zein jarrerara maskulinoak praktikatu.

Zer esan nahi dut horrekin guztiarekin? Noizbait gay edo lesbiana baten luma epaitzen baduzu, jarraian pentsa ezazu zein den zuk daramazun mozorroa, ea erabiltzea erabaki duzun eta ea zoriontsu eta libre sentitzen zaren. ■





Hau bide dugu
lehendakariak, hainbestetan
iragaritzen zituen MIKROMOKORDO
horietaRIK BAT...



honenako, kaka ttanttoak
ez zuen hainbeste
paperaren beharrik...

Anuntxi Arana

ANTROPOLOGOA ♦



GAIZKA IROZ

Ihiztari madarikatuak

ZUBEROTARREK *Bortüan Ahüzkü, ur onak osoki* kanta-tzen dute, munduko iturri onena dutelakoan, eta osagarria gainera. Mendi inguru hartan behiala izan ziren ostatuetatik bakarra geratzen da orain, udazkeneko igandeetan uso-ehiztariez beteta. Orduan mendikarientzat ez da giro. Txoriak ortzi mugan ageri eta eskopetadunak oihuka hasten zaizkizue: “Etzan, etzan!” Batzuetan zerutik behera berun eurixka eskaintzen dizuete, segur aski igartzen baitute “ehiztari madarikatuak!” marmarka zabiltzala.

Ehiztari madarikatuaren kon-daira oso ezaguna da. Apeza omen zen, mezako sagara esaten ari zela ehiza txakurrak erbi baten atzetik aditu eta, hostia utzi, arma hartu eta haien ondoan abiatu zen. Geroztik bere zaunkariekin airean ibiltzera kondenatua da betirako, sekula harrapatuko ez duen erbiari jarraika. Haize zakarra egiten duenean, tropa osoa sumatzen da harramantza handian zerua zeharka-tzen.

Ahüzkik ere badu holako *ihiztari beltza*. Baina, Xiberua Xiberu, airean ibili gabe lurpean aritzen da, hango leize sakon batean. Ortzantzak mendia ikara-tzen duenean, artzainek *ihiztariaren* adarra eta *ihizto*-ren zaunkak entzuten dituzte zulo barnean. Altzürükü Ürrütiko zalduna omen da, igande batez

meza utzi zuena orkatz baten atzetik joateko —noble bat ez zen erbi batengatik korrika hasiko.

Jaun hori gaiztoa bezain, zintzo zen haren emaztea, aingeru bat. Behin, mantala bete ogi jalgi zen gaztelutik, txiroei jaten emateko. Senarrak ikusi eta galdegin zion ea norat ari zen. Emazteak, lihoa zeramala ehule etxera. Gizonak mantala bortizki erausi eta...

lihoa zen lurrera erori, Hungariako Santa Isabelen mirakulu bera.

Beste istorio bat ere bada. Ürrüti horrek neska baserritar bat baitzuen maitale, haren etxera joan zen anderea eta ikusi zuen iztupazko mihiseak zituela. Gaztelutik lihozkoak hartu eta neskari eraman zizkion, esanez jauna ez zitekeela iztupazko mihisetan etzan. Senarra ez zen gehiago maitale harengana itzuli.

Andrearen izpiritu sotila nabarmentzeko kontatzen da istorioa.

Alta, ezinago itsusia da pobrengana erakutsi zuen nagusikeria. Noren baimenaz sartu zuen sudurra etxe hartako oheraino, egoiliarak apalesteko? Ez da ulertzen jauna kondenatu zuen herri tradizioak nolaz laudatu duen haren emaztearen destaina.

Ipuinen misterioak. Bitartean, andere fin hori hartu eta, bere senar eta gaineratik ehiztari madarikatuekin batera, orbitan ezarriko bagenu? ■



Ahüzkik ere badu holako “ihiztari beltza”. Baina, Xiberua Xiberu, airean ibili gabe lurpean aritzen da, hango leize sakon batean

DANI BLANCO



Edu
Zelaieta



IDAZLEA

Bigarrena

BIGARREN seme-alabaren esperoan dira. Lehena duela bost urte jaio zen; Naia izena du neskatxak. Bigarrenaren inguruan galdetuta, 30 urte pasako aitak zera dio: “Mutiko bat nahiago nuke. Hala ere, beste neskatila bat etortzen bada, ez dugu etxetik bidaliko, ezta? Dena den, egia da, bai: aurrekoa alaba da eta... mutikoa nahiago oraingoan”.

Bigarren seme-alabaren esperoan dira. Lehena duela bi urte eskas jaio zen; Ander izena du mutikoak. Bigarrenaren inguruan galdetuta, ia 40 urteko aitak zera dio: “Bada, nik beste mutiko bat nahiago. Ez dakit... Anaiarekin jostatzeko edo. Gainera, aurre-

koaren arropa guztia mutilarena da eta, bigarrena neska izanez gero, dena erosi beharko genuke berriz”.

Lehena semea nahiz alaba izan, mutikoa nahiago dute bigarrena. Diskurtsoan zalan-tza zerbait egin badute ere, barrenak ez du duda handirik erakutsi bietan: argudio ezberdinak baliatu dituzte ideia —emozio—bera defendatzeko. Inguruko jendeak ere badaki horren berri; izan ere, *bigarrenaren* gaia ateratzen den aldiro, irribarretxoak marrazten dira aurpegietan. Normaltasunak konplizeak ditu. ■





Xabier Mendiguren Elizegi

♦ IDAZLEA

Lubaki berriak

GAUZA jakina da zein bidegabea den geneen banaketa: bata eder eta segail egiten dute, bestea itsusi eta baldar; hau harroa, hura apala; harakoa argia, honakoa ergela. Loteria hori ez dakit arbitrarioagoa edo logikoagoa den dohainak familia batean pilatzen direnean: Muguruza anaia irundarrek, denek dute musikarako talentua; Etxeberria neba-arreba zarauztarrek, berriz, literaturarako esku ona; kasurik deigarriena, baina, Tolosako Ubedatarrena iruditzen zait, diziplina askotarako sentiberatasuna bildu baitute etxe berean. Joni eta Imanol anaia bikiak izango dira beharbada ezagunenak, Bide Ertzean taldeagatik; Garbiñe arreba zaharrena diseinuan nahiz idazketan nabarmendu da; hain ezaguna izan gabe, Joxik bere bidea egin zuen musikan, eta Xabi argazkilaritza trebea da, garai batean fotomatoiekin esperimentuak egiten zituen.

Udazken honetako nobedade pare batek eman didate artikulurako aitzakia: Bide Ertzean-ek 77 atara berri du, batasun tematikoa duen diskoa: Sebas Goikoetxea beren osaba urte horretan hil zuen guardia zibilak, Ezkio-Itsason errepide-kontrol batean Nikolas Mendizabal zaldibiarra-ekin batera; ETA pm-ko kideak biak. Gertaerak nola izan ziren, inoiz ez da argitu. Orduko giroa, sentsazioak, irudiak eta sentipenak jaso dituzte Imak eta Jonik kantetan, eta abestien taxuera ederra bezain azpimarratzekoa da diskoa bera kontzepzio eta objektu gisa: barruko disenoa, argazkiak, testu lagungarriak...

Garbiñek, berriz, lehendik kronika eta saiakerak idatzi ostean, narrazioari ekin dio, *Hobe isilik* nobelarekin, eta hemen ere familia izan du inspirazio-iturri: Altsasuko aitona anarkista, gerra galdu eta gero Frantzia betiko desagertu zena, hemen familia utzita. Bide Ertzeanen *Non dira* oroitu behar, baina Garbiñek atzera utzi du oinarri dokumentala, fikzioaren eremuan sartzeko: hartara, kasu partikularra gainditzeaz gainera, beste hainbat gairi buruzko gogoeta egiteko aprobatxatu du.

36ko kontuak sarri aletu direla irudi lezake, baina oraindik ez da agortu gaia ikuspegi original bat ematen asmatuz gero; gure beste gerra hurbilagoa, berriz, oraintxe ari da historia bihurtzen

Bi sorkarien kasuetan, historiatik zer jaso eta nola transmititu da kezka nagusietako bat, eta horrekin lotuta nola egin gure gatazken "kontakizuna". 36ko kontuak sarri aletu direla irudi lezake, baina oraindik ez da agortu gaia ikuspegi original bat ematen asmatuz gero; gure beste gerra hurbilagoa, berriz, oraintxe ari da historia bihurtzen, eta historiografia nahiz artea izango dira, hortaz, lubaki berriak. ■




1 irakurri



2 hautatu



3 erabili



4 Egin iruzkina



«Sinesgarritasunak eta zehaztasunak obsesionatu naute»

Argitaratu berri duen *Euli-giro* (Susa) ipuin liburua aitzakia hartuta, begia non jarri duen galdetzera joan gatzazkio, eta bidenabar, bertsolaritzaz eta feminismoaz mintzatzera.

| ESTITXU EIZAGIRRE / GARBINE UBEDA |

Egoera deserosoak erretratatu dituzu, giro gogaikarria, izenburuak iradokitzen digunez. Zer landu nahi izan duzu?

Euliak zurrunbiloa izan daitezke, itolarria, traba, iluntasuna, deserosotasuna eragiten duten detaile txiki asko... Baina euliek, kanpotik, ez dirudite arazo handia. Gainean dituenak bakarrik sentitzen ditu.

Ipuinak idazten hasi nintzenean, asmoa ez zen gai baten inguruko bilduma osatzea. Nire emozio eta sentazioetatik eta nire inguruko emakumeen sentazioetatik abiatu naiz, ipuin

asko fisikotasunean kokatuta daude, gorputzak presentzia handia duela esango nuke. Sentsazio horiek giro eta atmosfera batzuk sortzera eraman naute. Bakoitzak euliekin zer egiten duen da kontua: akabatu, apartatu ala haiekin bizitzen ikasi.

Ahalik eta ipuinik onenak idaztea izan dut helburu, testu bakoitzarekin konprometitzea. Deserosotasun hitza zabalegia egiten zait. Zenbait ipuinek puntu kezagarria dute, edo itolarri giroa da nagusi, baina badago umorea, eta ironia, bakoitzak zer eta nola irakurtzen

duen, nola sentitzen den. *Opariak* ipuinean, kasurako, umore handia dago, umore beltza, nahi baduzu. Dibertitu egin naiz ipuin hori idazten. Deserosoak izan daitezke, edo harri-garriak, edo ezinegona eragiten dutenak...

Sentimenduak landu nahi izan dituzu, beraz?

Ez dakit zer esan. Idazle bakoitza leku desberdin batetik abiatuko dela iruditzen zait, adibidez intelektotik. Ni, berriz, emozioetatik abiatzen naiz batez ere. Ipuin bat lantzen hasten naizenean abiapuntua ez da izaten honoko hau adierazi nahi dut edo halako zera aldarrikatu nahi dut, edo jendeak zera uler dezan nahi dut... Helburua literarioa izan da guztiz, ez da introspekzio ariketa izan. Miren Agur Meabek *Kristalezko begian* helburu literarioa zuen baina bere buruarekin ahalik eta fidelen izaten saiatu zela esan zuen. Nireak hori ere ez du. Fikzioa egiten saiatu naiz hasieratik, eta gero, idazle gisa askotan egiten dudak akatsa, ipuinak buruan ondo egituratu gabe ditudala hasten naiz idazten, bul-tzada batetik. Eta ari naizela konturatzen naiz hemendik ez noala ondo, eta emozio, istorio edo hasierako material hori utzi egiten dut, edo beste forma bat ematen diot edo baztertu egiten dut.

Ipuin asko gelditu dira atzera bidean, baina bukatu ditudan guztiak hemen daude.

Zertan jarri duzu ahalegina?

Hizkuntzari dagokionez, ahalik eta zehatzena izaten saiatu naiz. Jarri dudak adjektibo bakoitza jarri nahi izan dudalako dago hor, jarri nahi nuena hori zelako. Zehatzasunak eta sinesgarritasunak obsesionatu naute; sinesgarritasuna, askotan hitzarmen surrealista baten barruan, ipuinak zenbait kasutan erabat sinesgaitzak izan litezkeen arren. Niretzat zentzua, gorputza eta osotasuna daukan testua bilatu dut. Zentzu horretan, oso ongi ezagutzen ditut pertsonaiak, eta hori bada aldea *Aulki bat elurretan* liburuarekiko. Ez dut uste hango pertsonaiak hain ongi ezagutzen nituenik. Haiek istorio bat kontatzeko edo atmosfera bat sortzeko aitzakia ziren orobat. Hemen, pertsonaien psikologia ezagutzen saiatu naiz, eta zehatza izaten. Pertsonaia liburua dela esango nuke.

“Bakoitzak euliekin zer egiten duen da kontua: akabatu, apartatu ala haiekin bizitzen ikasi”

Elkarrekiko oso ezberdinak dira ipuinak. Haien arteko lotura, deserosotasun deitu dion hori, mahatxuzko atmosfera edo, kasu batzuetan obsesioa dela esango nuke. Pertsonaiak ez daude lasai.

Ipuinak lanbro bat bezala heda zitezen saiatu naiz, a priori gogorrek, ertzekoak edo are sinesgaitza diruditen egoerak pixkanaka arrunt nola bilakatzen diren marrazten. “Entenditzea ohitzea dun”, dio pertsonaia batek.

Bestalde, etxeen presentzia handia da, istorio asko etxe barruetan gertatzen dira, gerora konturatu naizenez. Izango du zerikusirik azken bi urteetan, haurra jaio ezkerotik, etxean denbora luzea pasatu izanak. Etxea, familia, gertuko harremanak, horiek sarri agertzen dira. Eta emakumeen gorputzek ipuin guztiak zeharkatu dituzte. Euli-giroak inguratutako pertsonaiak izanagatik, emakume horiek guztiak subjektu aktiboak dira, hartzen dituzten erabakiek definitzen dituzte narrazioak. Adin guztietakoak ageri dira, gazteena nerabea da, 15-16 bat urte ditu, eta zaharrena, berriz, 80 urte inguruko emakumea da, hilzorian dagoena... Emakumezko pertsonaien sinfonia bat dago; singularitateetatik abiatuta, “gu” bat. Pertsonaiek ere, euren txikian, giro bat eratzen dute.

donostiakultura.com



DESERRIKO KANTAK
EÑAUT ELORRIETA
Antzoki Zaharra
Urriak 18. 20:00



KOMUNIKAZIOA - INKOMUNIKAZIOA
ARRIAGA ANTZOKIA,
KUKAI, TANTTAKA
Victoria Eugenia
Urriak 19-20. 20:00



KOKA KOLA ETA BAREA
RAMON AGIRRE &
INAXIO TOLOSA
Gazteszena (Egia)
Urriak 20. 19:30
euskara



SARRERAK
Leihatilak
www.kutxasarrerak.net
BAZKIDEAK % -10



Zure ustez, ipuinak non behar du indarra, non du gailurra?

Inon ez lasaitzen ahalegindu naiz. Hasierako giroko deskribapena zehatza izan dadin saiatu naiz, baina berdin espazioekin, pertsonaien barne munduekin... Deskribatu ditudan pertsonaiak, etxeak, margolanak... Ondo eza-gutzen ditut. Zorroztasuna mantentzen ahalegindu naiz, ezer pasa ez dadin zubi moduan. Tentsio hori ipuin osoan mantentzen ahalegindu naiz.

Bi urteko lanaren emaitza da *Euli-giro*. Tarte horretan ia egunero idatzi dut, pare bat orduz arratsaldeetan. Ipuin bakoitzarekin bi hilabete inguru joan zaizkit, batez beste.

Denetarik idazten duzu ia, kontakizunak, nobelak, haurrentzako ipuinak, bertsolaria ere bazara. Zer du berezi bakoitzak, denak egin nahi izateko?

Kanpotik begiratuta, gauza ezberdin ugari egiten dudala eman dezake, baina duela bi urte eta erdi kazetaritza lanak utzi nituenetik, bi gauzatan zentratu naiz: bertsoetan eta idazten. Ni bat naiz, baina nire barruan oso jardun diferenteak dira, elkar ukitzen dute, baina ez dira elkarren barruan sartzen. Beti esaten dut aste barruan gehiago naizela idazle eta asteburuan bertsolari, eta udan bertsolari eta neguan idazle.

Bi urte hauetan *Euli-giro* proiektu zentrala izan da. Haurrentzako ipuinak parentesi txikia izan dira. Horretara jartzen naizenean ehuneko ehun jartzen naiz, baina arnas txiki moduko bat dira, momentu batean ardatz horretatik irtetea ahalbidetzen didate. Hala ere, ez naiz ipuinen bila joaten. Kotxean joan, eta bat-batean bertso baten bukaera etortzea bezalatsu da. Hortik bertso-sorta egitea erabakitzen duzu, badakizu denboran ez dela luzatuko ahalegin hori. Jolas moduko bat da, bere garrantzi guztiarekin, ez du esan nahi ahaleginik jarri gabe egiten dudarik.

Helduen ipuinak ere jolasak dira?

Ez. Literatura nire pasioa da, eta bizitzeko modu bat ere bai. Beti idatzi izan dut, idazten ikasi nuenetik.

Helduentzat idatzi dudanean batzuetan serioegi jarri izan naiz neure buruarekin. Badakizu jendeak irakurri egingo duela eta ezberdin epaitzen dela, haurrentzat denean ez bezala, euli-giro bat sortzen dela. Dena den, askoz libreago idatzi dut hau, eta lasaia-



“Bertsotan drakinga edo panpina izatea gizonezkoen munduan onartuak izateko estrategiak dira”

go. *Aulki jokoa* argitaratu eta hurrengo bi urteetan ezin izan nuen ezer idatzi. Izugarriko presioa ezartzen nion neure buruari. Urte hartan Txapelketa Nagusia ere jokatu zen, eta oso kanpora begira sentitzen nuen nire burua, besteek zer pentsatuko zuten, inguruak eraman egiten ninduen, jendeak zerbait espero duela adierazten zaizulako, horrek erabat blokeatu ninduen. Erditu nintzenean beldur gehienak uxatu nituen. “Oso denbora eskasa dut niretzat”, esaten nuen neure baitarako, “eta nahi dudana egin behar dut, gero jendeak esan dezala nahi duena”. Alde horretatik, gozatu egin dut. Sorkuntzak dituen momentu onak eta txarrak bizi izan ditut, baina asko gozatu dut. Goiza umearekin pasa, siesta egin, eta neska batek haurra bi orduz hartzen zidanean hasten zen nire momentua: arratsaldeko kafesnea, zigarroa eta idaztea. Zailena izenburua aukeratzea izan da. Ez dut sufritu. Blokeoa izan dut, haserre egunak,

baina ez kanpoko presioaren ondorioz, testuko ezin konponduenatik baizik.

Gorputza oso presente dago zure ipuinetan, eta bertsotan jokatzen duen rola ere aztertua duzu.

Lehenengo emakume belaunaldiak, inkontzienteki gorputza estali zuen, bazekitelako gorputza taulan jarritz gero subordinazioan erortzen zirela. Intelktoan bakarrik lehiatzen garenean dauden aldeak askoz txikiagoak dira. Baina gorputza lehian jartzean emakumearena beti da subordinatua. Oso estrategia ohikoa izan da alor guztietan gorputza estaltzea, eta egin beharrekoa gizonezkoek bezala egitea. Baina horrek badauzka ajeak, esaterako, gorputzarekin batera denbora luzez estali direla emakumeen sexualitatea, desira, emozioak... Lehen belaunaldiak gorputza estali izanari esker egin zuen aurrera, eta horregatik izan zen posible beste belaunaldi bat sartzea gorputza presentetago zuena. Baina gorputza agerian jartzearekin batera, beste aje batzuk sortzen dira: subordinazioarekin eta generoen arteko dikotomiarekin aurrez aurre topo egiten duzu eta hori kudeatzen ikasi behar duzu.

Ironiaz egindako sailkapenean “drakingak” eta “panpinak” deitzen diegu bi motei. Badirudi jada posibilitate guztiak daudela oholztan. Eta ez da hala. Oraindik bertso munduan eta tradizionalki gizonenak izan diren munduan sartzeko bi sarbide horiek daude: drakingare-



na, gizonezkoen balore, gorpuzkera, jokaeretan mugitzea, eta bestea patriarkatuan moles-tatzen ez duen emakumea, panpina. Panpina-ren ajea horixe baita, egokitasunaren kortsea, beti egoki kantatu beharra: lotsagabea bai baina lotsagabeegia ez, indartsua bai baina zabarra ez, goxoa bai baina txolina izan gabe, beti oreka horretan mantendu beharra. Bertsotan horrela pasa nituen lau bat urte, eta ika-ragarri nekatu nintzen, denbora guztian egoki izan behar horretan.

Zein litzateke hirugarren atea?

Denoi sarbidea emango diguna, ez dagoena gizonezkoen begiradatik neurtua. Bai drakinga izatea eta bai panpina izatea, gizonezkoen munduan onartuak izateko estrategiak dira. Baina badakigu denok dugula denetik, inor ez dela draking hutsa edo panpina hutsa. Hirugarren atea pertsonarena da. Gizonezkoen kasuan gauza bera gertatzen da, epailea ez baita gizona genero bezala, gizontasun hege-moniko hori baizik. Hor ere gizon asko ez dira eroso sentitzen.

Txapelketa Nagusitik kanpo geratu zinen. Ba al da bizitzarik txapelketaz kanpo?

2011ko Gipuzkoako Txapelketan kanporatu eta nire burua Txapelketa Nagusitik at ikusi nuenean min handia hartu nuen, oso triste egon nintzen. Txapelketa hartan neurritz kan-poko ahalegina egin nuen, gure alabak hilabete zeukan! kolikoak zituen, ez nuen batere lorik

**"Beti esaten dut
aste barruan
gehiago naizela
idazle eta
asteburuan
bertsolari, eta udan
bertsolari eta
neguan idazle".**

egiten, eta ordu laurden neukanean errima margaritak egiten hasten nintzen! Ez zen nire momentua eta nire burua behartu nuen txapelketara joatera, gauza bakarragatik: izugarritzko beldurra niolako erakusleiotik desagertzeari, bertsolaria naizelako eta plazak egin nahi ditulako. Eta nire bi ofizioetako bat ere badelako. "Bertsorearen festa" eta "oinarria"z hitz egiten da, baina bertsolariok gure ogia dugu jokoan. Bakoitzak txapelketara daraman presioaz ez dugu bertsolarien artean ere hitz egiten.

Beldurra nion kanpo geratzeari eta gerora pentsatu dut "zer ondo hala gertatu izana". Behartu nau egoera errealarari aurre egitera, beti mamuekin bizi beharrean. Orain oso pozik nago eta erabaki dut hurrengo Gipuzkoako Txapelketara ez aurkeztea. Ikusi nahi dut benetan zer gertatzen den aurkezten ez banaiz. Ez dut beldurragatik aurkeztu nahi berriz. Momentu batean itzuli behar badut saio gutxi dudalako, jakin nahi dut oposaketa batera noala, ez ditut gauzak nahastu nahi.

Kontziente naiz erakusleio horretan ez banago beste erakusleio batzuk landu behar ditudala. Nire indarrak beste proiektu batzuetan jarri nahi ditut. Puntu erantzuna edo zortziko txikiko lanak prestatzea baino gehiago motibatzen nau gaien tratamenduan aurrera nola egin lantzeak, edo nire beste pasioa den literaturarekin uztartzeak... Neure buruari erronkak jarriko dizkiot, baina ez txapelketaren prismatik. ■



Arestirekiko zor historikoa kitatu asmoan

Urteak joan dira Gabriel Aresti euskal idazlea zendu zenetik, baina bizirik jarraitzen duela adierazi nahi du haren izena daraman kultur elkarteak, sentikari baten bitartez. Oier Guillan, Rafa Rueda, Alain Urrutia eta Andoni Egaña ditugu Arestiren bihotza oholtzara eramango duten lau sortzaileak.

| AINHOA MARIEZKURRENA |

Argazkiak: Gabriel Aresti Kultur Elkartea



IDAZLE BIZKAITARRA benetako mugarri historikotzat jotzen du Gabriel Aresti kultur elkarreko kide Xabier Monasteriok. Literatura aurrerakoia, Euskal Herria euskalduna eta justizia soziala defendatzen zituela gaineratu du, eta gaur bizirik balego, borrokan jarraituko lukeela. Literaturari eta jendarteari ekarri zion norabide aldaketa erakutsi nahi diote herriari; bere lanen zein pertsonaren ondarea. Horretarako sortu dute, hain zuzen, *Gabrielen Lekua* ikuskaria.

Arima idazleak berak jarri badio ere, antzerkiak, musikak, bertsoek eta ikus-entzunezkoek gorpuztu dute *Gabrielen Lekua* ikuskaria. Arlo horietan adituak diren Rafa Ruedak, Andoni Egaña, Oier Guillanek eta Alain Urrutiak ondu dute ikuskaria. “Bakoitzaren askatasunari uko egin gabe aritu dira

Rafa Rueda, Oier Guillan, Alain Urrutia eta Andoni Egaña.

elkarlanean, helburu bakarrarekin”, adierazi du Monasteriok. Interpretazio historiko hau protagonistak bakoitzari eragin dionetik abiatu dute. Begi guztien batura litzateke beraz.

Monasterioren ustez pluralean erantzun beharko litzateke Gabrielen lekua zein den galdetzen denean. Aurrez aipatutako esparruetan borrokan aritu baitzen bizitako 42 urteetan; literaturan, hizkuntzan eta justizian. Ahulenen alde egiteko grina eta indarra goraipatu du Monasteriok, “ideologiak ideologia baloreak erakutsi dizkigulako”. Egun, leku bat baino gehiago izango luke Arestik Euskal Herrian eta horiek guztiak agerrarazi dituzte ikuskarian: “Mendi gain batetik

begira balego, Euskal Herri euskaldun eta justua bilatuko luke, gaur oraindik borrokan”.


Gabrielen lekuak ardatz, Euskal Herrian barrena aurkeztuko dute ikuskaria. Urrian 80 urte beteko lituzkeela kontuan izanik, oparia egingo diote laster hasiko dituzten ekitaldien bidez. Estreinaldia hilaren 29an izango da Bilboko Kafe Antzokian, “Gabrielen etxean”, omenaldi gisa. Euskal Herri osora iritsi nahi dutela adierazi dute, idazleak bezala denok “euskaldun unibertsalaren espiritua izateko”. Horrela bada, ezagutzen dutenek lana eta pertsona ekarriko dute gogora eta ezagutzen ez dutenek haren berri jakingo dute. Aurre-estreinaldia urriaren 12an egingo dute Donostian, Intxaurren Kultur Etxean.

Ikuskariaren tonua

Musika da istorioaren haria. Idazlearen olerki ezagunenek ematen diote esanahia kantuei, eta Rafa Ruedak sorturiko doinuek, sentimendua. Jendeak Arestirengandik izan dezakeen irudi “krudeletik” aldentzen saiatu da musikaria, olerkien alde samurrena ateratzen: “Malenkoniatik urrundu eta parametro horretatik samurtasunera begiratu dut, hori adierazi nahi izan dut musikaren bidez”.

Barrerik egiten ez zuen gizona litzateke jende askok Arestiri ipiniko liokeen definizioa, Ruedaren ustez. Baina familiak haren beste aurpegia erakutsi zionez geroztik, jendeak ikusten ez duena adierazi nahi izan du. Arestiren ideia harrizkoa zela sinetsita, “harriaren bihotzaren bila” abiatu direla esan du, musikak tonu hori emango diola argudiatuta.

Teklatuak, zenbait gitarra, klarineteak, tronpetak, perkusioak eta ahotsak girotuko dute eszenatokia, tartean baita Andoni Egañaren bertso sortak ere. Instrumentu “moldagarriak eta goxoak” aukeratu ditu ekimenerako, aipatutako sentsazio hori azaleratzeko helburuz.



1975ean zendu zen Gabriel Aresti. Hura hil eta hiru urtera bere izena daraman euskaltegia sortu zuten. Gerora alaba irakasle egin zen eta emaztea ikasle, hori falta zen “zirkuitua ixteko”: aitaren izena, emaztea eta alaba. Bilbotarraren ondarea guztiz babestua ez zegoela konturatu ziren, eta “zor historikoa” zeukatela idazlearekiko. Hortaz, kultur elkarteak sortzea otu zitzairen eta baita aipatutako ikuskaria ere.

Jakin-minagatik eta batez ere Gabriel Aresti ezagutzeagatik animatzen du jendea ikuskarira hurbiltzera Rafa Ruedak. Lau sortzaileek idazlea nola ikusten duten suma daitেকেela dio, eta nork bere gogoeta egitera bultzatzen duela: “Buruan hain urrun baina, finean, egunerokoan dago”.

Xabier Monasteriok, ordea, historiak gaurko mundurako irakaspen handiak ematen dituela nabarmendu du eta aitzindariak eza-gutu behar direla. Sentikariak, XX. eta XXI. mendea lotzen dituela gaineratu du. Arestiren beraren filosofia eman nahi du aditzera, “etorkizuna irakurtzen zuen horietakoa” baitzen. ■



Bertsolari
Txapelketa
Nagusia 2013

KANPORAKETAK
MARKINA-XEMEIN

Udal pilotalekua
Urriak 5, 17:30ean



Egin
Laburu



Erkaite
Estiballes



Beñat
Ugartetxea



Eneko
Fernandez



Ione
Uria



Oñintza
Enbeita


www.bertsozale.com

ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEA





Helduen Literatura | ITZULPENA

Atzo
Agota Kristof

Itzultzailea: Eskarne Mujika.
Alberdania-Elkar, 2003

Dena zen errazago

NIK EZ DAKIT nola iritsi zen Agota Kristof euskarara. Esan nahi dut, mundu mailako izen ezagun bat izan gabe –gaur egunean ere ez da, nahiz inon irakurri dudan inoiz Nobel sarirako hautagai izan dela–, Espainiako liburu merkatuaren bermerik izan gabe –eta oraino da autore bat Espainia aldean nahikoa gaizki tratatua–, nola baten batek hartu zuen 1997an Kristof euskaraz emateko deliberoa. Esango didazue Frantzian *Le grand cahier* argitaratu eta berehala izan zuela jesukristoren arrakasta. Ados. Esan nahi dudana da, euskaraz argitaratzeko apustua egin zen bezala, lasai asko utzi ahal izan zutela bere horretan. Ez zen lehen aldia izango. Baina baten batek izan zuen *Koaderno bandia* ateratzeko ideia briliantea. Eta geroko istorioa ezagutzen dugu: auskalo zenbat edizio, auskalo zenbat ale saldu, auskalo zenbat irakurlerentzako erreferentzia. Pentsa, klubetara eramaten dute oraindik.

Kristofek argitaratu zuen laugarren eleberria den *Atzo* honen kasua, orde, are zait bitxiagoa. Literatura unibertsaleko 103. emaitza baita. Eta bildumaren arduradunek behin baino gehiagotan agertu baitute argitaletxe komertzialekin ez lehiatzeko borondatea. Eta esango dut berriz: Kristof ez zen –ez da– idazle kanonikoa. Beharko luke, hartara, gisa horretako bilduma batean lekua? Are aurretik euskaraz dagoeneko haren eleberri arrakastatsu bat bazela kontuan hartuta?

Kontuak kontu, gauza da *Atzo* hau ere euskaraz daukagula –eta hirugarren bat, *Berdin dio* narrazio laburren bilduma–. Zer kontatzen zaigun bertan? Tobias Horvath-en istorioa, Tobias Horvath berak azaldua –“Izenik gabeko herri batean jaio nintzen, garrantzi gabeko herrialde batean”–. Gerratik ihesi, babes-herri bat hartzera behartua, fabrika bateko katean kondenatua –“beti zulo bera pieza berean; hamar mila aldiz egunean”–. Eta Kristofen biografia zertxobait ezagutzen duenak berehala igarriko dio bi bizitzen arteko paralelismoari. Kristofek aitortu zuen *Atzo* zela bere testurik autobiografikoa. Tobias emakume baten oroitzapenak, hura inoiz elkartuko zaionaren esperantzak bizi du, gainera. Hemen biltzen du eleberri laburraren muina: “Nire bizitzari dagokionez, hitz gutxitan laburbil daiteke: Line etorri zen, eta gero berriro joan zen”.

Zorrotza, gordina, krudela, umore beltz ukituekin. Lehorra, biluzia, garratza, hezuraren hezurra baino ez da. Atsekabe, desesperantza, min dosi doiak ditu. Eta erbestearen, bakardadearen, memoriaren gaineko ariketa kolpagarria da. Esaten du eleberriak: “Atzo dena zen ederrago”; baina esateko pixka bat aurrerago: “Oraina besterik ez dago”. ■

Aritz Galarraga



TALLERES
MITXELENA S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com



Rock and roll basatia

ZAKILLERS! Berako taldea SixtySexers-en “anaia txikia” modukoa da, taldekideen beraien hitzetan: “Anaia bihurri eta kaskagorrra, ZaKillers! ganberismoa da, ganberrismo ilustratua”.

Hala da, bai. Izan ere, SixtySexers taldeko Julen Irazokik (gitarra), Xiker Salaberriak (baxua) eta Mikel Larratxek (ahotsa) Inaxio Agara bateria jolearekin –SixtySexers taldeko sortzaile eta kide izana– martxan jarri duten taldea da ZaKillers!.

“Hasieran gure asmoa rock adarjotzaile moduko bat egitea zen, oso erritmikoa, hasierako Danko Jones-en estilokoa, baina pixkanaka-pixkanaka kantuek gordintasuna eta abiadura eskatzen zuten, Poison Idea eta Misfits taldeen erara. SixtySexersen azken joeratik aldendu nahi genuen, hainbat giro iradokitzen zituzten kantu luzeak egiten baikenituen, baita psikodelikoak ere. ZaKillers! makarrarena egiteko aitzakia da: kantu laburrak, apaindurarik gabe, eta zuzenak”.

Mikel Larratxeren hitzak dira horiek, eta hark esaten duen horixe egiten dute: rock and roll basatia, punk-rock and rolla, rock bizia eta makarra. Doinu gordinak, indartsuak, azkarrak eta zuzenak jotzen dituzte, gehiegizko apaingarririk gabe.

Zazpi kantu bildu dituzte beren lehen diskora, eta kantu horietan azpimarragarria da Mikel abeslari eta frontmanaren nortasun handia, eta gainerako taldekideen trebezia haien musika tresnak jotzeko garaian.

ZaKillers! taldekoek 2011 eta 2012 urteetan landu eta ondu zituzten kantuak Berako Aduanara, eta aurtengo apirilaren kaleratu dute beren lehen lana. Inigo Irazokik grabazioa eta nahasketak Sorotan Babies tal-



Hyena
Zakillers!

Autoekoizpena, 2013

dearen lokalean, Saran, egin ditu, eta Jonan Ordorikak masterizazioa, Azkarateko

Mamia Mastering estudioan. Zenbait kantutan Joseba B. Lenoir aritu da produktore lanak egiten, eta taldekideek Inigo Irazokiren laguntza izan dute diskoa erregistratzerako garaian.

Halaber, grabazio saioetan, Joseba B. Lenoir bera gitarra jole kosmikoa izan da, eta Cleve/TheCapaces, berriz, gitarra hiltzailea.

Ekoizpen lana ongi egina dago. Kantuak ozen entzuten dira. Soinua zuzena eta zehatza da. Kantuen erritmora, burua eta zangoak berehala mugitzen hasten zaizkigu. Bolumena igota, kantuen indarraz eta bizitasunaz gozatzen dugu.


Aurkezpena eta diseinu lana ere aipagarriak dira, edukia ilustratzeko ezin egokiagoa baita.

Jendaurreko emanaldi batean ikusteko moduko taldea da ZaKillers!. Beren saioak ikaragarriak izango dira. Hasi besterik ez dira egin, baina, dudarik gabe, zeresana emango duen taldea izango da. ■

Joxi Ubeda



Gurutzegrama



Sudokuak

Erraza

			6	5	2	3		
			4			9		
3		6	7	1			4	5
6				7	5		4	
9	2				6		1	
5	1	2					3	
2	5			7	1	4		6
		4			8			
		9	5	6	4			

Zaila

			5			6	
8	4			9	5	2	
			6	8		7	
6	1					8	
	3				9		
4					7		6
3		9		4			
1	2	8			6		7
8			1				

Ezker-eskuin:

1. Kirol mota. Italiar jatorriko jakia. 2. **Argazkian**. Handi samarrak diren jantzien taila adierazten duen zenbakia. 3. Zuhaur. Ohitura. 4. Arau-multzo. Sarrera. 5. Berkelioaren sinboloa. Fruitu luzarana. Emeen ugatza. 6. Ihar. Sinetsi. 7. Ekintza. Borondatez. 8. Haizearen jainko grekoa. Barruraino.

Goitik behera:

1. Gizakiaren tamaina. 2. Poesia. 3. Xumea, xehea. Heldu aditzaren infinitiboa. 4. Frantzioaren sinboloa. Alex ..., kantaria. 5. Bere herriaren alde borrokatzen duena. 6. Tok ..., Papua Ginea Berriako hizkuntza. Telebista. 7. Bokal errepikatua. Betea. 8. Danimarkar. 9. Txitatzen. 10. Medikuntzan erabiltzen den landare. Euskal Herrian Euskaraz. 11. Errusiako enperadore. 12. Helburua, xedea. 13. ... egin, eskaini eta ez eman. 14. Hitzarmen, akordio. 15. Etxe multzo.

Kike Amonarrizen umorea

Ezin ahoskatu



Udako oporretan Amerikako Estatu Batuak alderik alde zeharkatu zituzten bi tolosarrek, bertan autoa alokatuta. New Yorketik atera eta bisitatu zuten lehen herria estatu berean eta Hudson ibaiaren ertzean dagoen Poughkeepsie izan zen. Izena esaten hasita, ordea, batek Pujipsi esaten zuen eta besteak Pojkepsi. Hura eztabaida auto barruan!

Herrian sartu orduko hamburger batera joan ziren bazkaltzeko



asmodan, eta ezer eskatu baino lehen bietako batek honela galde-tu zion zerbitzariari:

– Egunon! Hara! Ezer eskatu baino lehen, zalantza bat argitzen lagundu behar diguzu.

– Ea, bada!

– Ahoskatuko al zenuke, mantso, guk ulertzeko moduan, gauden lekuaren izena?

Eta zerbitzariak, pazientzia handiz:

– Bai, noski! Buuurrrrrr Geeeeeerrrrr Kiiiiiiiiinn!

Soluzioak

8	1	9	5	6	4	7	3	2
7	6	4	3	2	8	1	5	9
2	5	3	9	7	1	4	8	6
5	7	1	2	4	6	8	9	3
6	4	2	8	3	5	6	7	1
9	3	8	1	9	7	5	2	4
3	8	6	7	1	9	2	4	5
1	2	5	4	8	3	9	6	7
4	9	7	6	5	2	3	1	8

Erraza

9	8	6	7	1	2	4	3	5
4	1	2	8	3	5	6	9	7
7	3	5	9	6	4	2	1	8
2	4	8	3	9	1	7	5	6
5	7	3	2	8	6	9	4	1
6	9	1	5	4	7	3	8	2
3	5	9	6	2	8	1	7	4
8	6	4	1	7	9	5	2	3
1	2	7	4	5	3	8	6	9

Zaila

Ezker-eskuin: 1. Golf. Pasta. 2. Ilargia. XI. 3. Zeru. 4. Eñauti. 5. Arand. 6. Bk. 7. Banana. 8. Eñauti. 9. Eñauti. 10. Alog. 11. Tsar. 12. Irua. 13. Tati. 14. Irua. 15. Auzo.

Goitik behera: 1. Gizabete. 2. Olerki. 3. Laua. 4. Fr. 5. Gudar. 6. Pisin. 7. Aaa. 8. Asca. 9. Danimar. 10. Alog. 11. Tsar. 12. Irua. 13. Tati. 14. Irua. 15. Auzo.

DONOSTIAKO ZINEMALDIA

Ama-seme latinoak atzealde grisarekin

NAHIKO ITXUROSUA zirudien palmaresa bi sari handienekin hondatu dute. Zinemaldiaren aurreko edizio batzuetan ez bezala, bazirudien aurten kontsentsua izango zela nagusi, hasi Marian Alvarezek **La heridarengatik** jaso duen emakumezko aktore onenaren Zilarrezko Maskorretik, pasa **Quai d'Orsay**ren gidoi onenarenetik eta Jim Broadbenteraino, irrigarri, sotil eta ertz ugari erakutsiz **Le week-end**eko rol protagonistan. Baina Fernando Eimbekkek handi samar dauka **Club Sandwich** txikiarengatik jantzi duen zuzendari onenaren joka eta antzeko zerbait esan liteke **Pelo malo** gatz gutxiakoak altza duen film onenaren Urrezko Maskorraz.

Ama-semeen harreman zailak lantzen dituzten bi film latinoame-

rikar saritu ditu epaimahaiak eta Sail Ofizialean ikusi ditugun film onenetsuenak, **Quai d'Orsay** eta **Le week-end**, bi komedia oso europar, gutxiagorekin konformatu behar. Irizpide kontua da, noski, baina susmoa dut zinema jaialdietan beti kostatzen dela gehiago umorean ardatzen diren pelikulak saritzea, arinkeria delakoan-edo.

Urteroko kontuak dira hauek, bestalde. Sail Ofizialeko film guztiak ikusi ondoren ozpinduta bukatu duten kazetariak eta kritikariak oro kontent utziko dituen epaimahairik ez dugu ikusiko beste lauorgehi urtean. Ikusi beharko genukeena, eska litekeena, lehiaketarako hautatzen diren filmen maila apur



Mariana Rondón-ek jaso du Urrezko Maskorra, *Pelo malo* filmagatik.

bat hobetzea da. Sarituek gehiago edo gutxiago merezi, fokupean ederrago edo itsusiago atera, argazki honen atzealdea grisa izan baita 61. edizioan, Europako beste hiru jaialdi handien kondarrak jan izan bagenitu bezala. ■

**Gorka
Bereziartua
Mitxelena**



Kritika eta publikoa bat etortzen direnean

KRITIKA ETA PUBLIKOA bat etortzen direnean, pelikula batek ikusleen txaloak eta kritikarien laudorioak jasotzen dituenen, aintzat hartu beharreko obraren aurrean gauden seinale. Horren adibide dugu Hirokazu Kore-eda zuzendari japoniarraren **Soshite chichi ni naru/ Like father, like son** filma. Epaimahaiaren saria lortu zuen Cannesen, eta publikoak kalifikazio altuena eman dio Donostiako Zinemaldian. Izan ere, familia ereduak, seme-alabekiko harremanak eta gurasoen rola jomugan jartzen dituen galderaz eta gogoetaz betetako istorio bikaina da Kore-edarena.

Oro har, lan oso interesgarriak ikusi ahal izan ditugu aurten Zabaltegi Perlak sailean. Esaterako, **Kaze tachinu/The wind rises** lana, Hayao Miyazaki animazioile japoniarraren eskutik. Chichiro edo Totoro bezalako pertsonaien aitak hegazkinei buruzko istorio errealistak bati heldu dio oraingoa, ohiko

erritmo pausatu, estetika zaindu eta irudi ederren bidez. **Gloria** txiletarrak, helduaroan bizitzaz gozatzen jarraitu nahi duen pertsonalitate indartsu eta intentsuko emakume baten erretratu gazi-gozoa oparitu digu; transgresioa eta probokazioa sotila, delikatu eta ederra izan daitekeela erakutsi digu Beste Begiradak Saria jaso duen **Jeune et Jolie** frantziarrak (François Ozonek zuzendua); eta suspentsea mantentzen duen thriller trebe bat dilema moral eta etikoak planteatzen dituen drama garrantz batekin naturaltasunez uztartzeko gai izan da **Prisoners** estatubatuarra.

Euskal Zinemaren Saria **Asier ETA biok** dokumentalarentzat izan da, Asier Aranguren ETako preso ohiaren eta Aitor Merino




Like father, like son filmeko aita-semeak.

aktore eta zuzendariaren arteko laguntasunaz. Lan ausarta da, azkura eragiten duten orbainetan sartzen duelako hatza, eta bi protagonistak zintzoki mintzo direlako kamera aurrean, gai ugariren gordintasun, gogortasun eta konplexutasuna saihestu gabe. ■

**Mikel Garcia
Idiakez**





Euskal Herria ezagutuz

ERREZIL (GIPUZKOA)

Txoko ahaztuetan barrena

Errezildarren ateraldiak liburua aurkeztu dute aurten, zeinak errezildarren hainbat pasarte xelebre, bertso eta kontu biltzen baitituen, Gipuzkoako herri hori oso berezia dela agerian utziz. Jarraian aurkezten den txango zoragarri honetan Errezilgo txokorik ezagunenak –Hernio gailurra kasu– eta ezezagunenak bisitatuko ditugu.

Testua eta argazkiak:

| GORKA AZKARATE |



Hernioko gailurra, Bidaniako gainetik ikusita.

BISTAN DA Hernio mendia dela Errezilgo tontorrik berezien eta esanguratsuena. Gipuzkoako txoko gehienetatik ikus daiteke Hernio, eta ia urteko egun guztietan hango eta hemengo txangozaleak erakartzen ditu. Iraileko igandeetan bereziki, egun horietan erromeria ospatzen baita Zelatungo igarobidean.

Errezilgo elizaren atarian gaude la, burua jaso eta Hernioko gurutzea—gurutzeak esan beharko genuke—bistaratuko dugu urrunean, ia 800 metro gorago. Isurialde malkartsua da, zinez, hegoaldekoa. Iparraldekoa ez da gutxiago.

Hernioko gailurra izanda ere paraje hauetako bisitatuena, ez da gailur bakarra. Oraingoan proposatzen den txangoan ere igo genezake, hala nahi izanez gero, baina Zelatungo lepoaren bestaldeko eremuari emango diogu protagonismoa, Akategi edo Gazumeko gailurra buru. Hernio mendiguneko eremu ahaztua da, Gipuzkoako zokogune ahaztua.

Iraganeko Gipuzkoa hura

Errezilgo Etumeta auzoan hasi eta bukatuko dugu ezohiko txango hau. Bertara autoz igotzea gomendatzen dugu, nahiz eta Azpeititik—Arauntza eta Sañuko gailurrak igo ostean—, Urola ibaiaren ertzean dagoen Lasao auzotik, edo Aizarnatik ere iritsi daitekeen bertara, txangoa pixka bat luzatuz. Etumetako Benta zaharraren parean hasiko dugu txangoa. Han, kondairak dioenez, Loiolako Inaziok atsedean hartu zuen behin Erromatik etxera zetorrela. Etumeta auzoa oroimenean iltzaturik geratzen den inguru horietakoa da, dagoeneko iraganekotzat genuen Gipuzkoa baten erakusgarri. Lasaitasuna arnasten da bertan, ordularia derrepentean gelditu balitz moduan.

Auzoa atzean utzi eta maldan gora abiatuko gara, pagadian barreina lehenengo metroetan eta larrean ondoren, harik eta metro gutxitan altuera bizkor hartu arte. Malda gogorra sasi-ordeka bilakatuko da Txoondegiko muinoa inguratzen ari garela, eta laster iritsiko gara Komisolatzako lepoko dituguzera. Indoko gailurrak izango ditugu parez pare, eta hura izango dugu arnasa hartze-



ko azkeneko puntua, jarraian malda dexente zutituko baita, ia atsedetik gabe, Gazumeko gailurrera heldu arte.

Ez dago bidean galtzerik, eta gorago goazen neurrian, ikuspegia ere hedatzen joango da pixkanaka. Indoko gailurrera (758 m) igo gaitzke bidetik metro batzuk alden-duz gero, baina tamalez bidean gora jotzen dute mendizale gehienek eta gailur hau, beste asko bezala, ahaztuta dauden horietakoa da. Arrosetako lepora heltzen garenerako 200 metroko desnibela gauditua izango dugu Komisolatzatik, eta Mendibeltzera doan xenda jarraituko dugu segidan, nahiz eta posible den, baita ere, Mendibeltza eta Gazume igo gabe gailur horiek inguratuz zuzenean Zelatungo lepora iristea, Elka-men Txikiko bordetatik igaroz.

Basotik irten eta belardian gora eginez bizkor iritsiko gara Gazumeren zaindari den Mendibeltzako gailurrera. Metro batzuk jaitsi eta Gazume mendiaren azkeneko metroei egingo diegu aurre, harri artean gorantz eginez. Minutu gutxitan helduko gara Gazumera (1.003 m). Ikuspegi zoragarriaz goza daiteke gailur horretatik, eta

bereziki deigarria da Hernio mendiaren mendebaldeko horma zeinen eder bistaratzen den pare-parean.

Hernioren gailur maitatua

Gure ibilaldiak Iturriotz izango du hurrengo jomuga, baina behin Errezil aldera etorrita eta Hernioko mendigunean gabiltzala, bekakua dirudi Hernioko tontorra jo gabe uzteak. Azkar jaitsiko gara Gazumetik Zelatunera, harri artean lehenbizi eta belardian behera gero, pintura marka zenbait kasu eginez, lehenengo zatian bereziki. Iraileko igandeetan trikiti doinuak nagusi izaten dira bidegurutze estrategiko honetan, eta jendetza bildu ohi da hutsik egin gabe, nahiz eta garai bateko argazkiak eta gaur egungoak errepasatuz gero Zelatungo erromeriak behera egin duela eman dezakeen zenbaitetan. Edozein kasutan, indarrak berritzeko aukera paregabea izango dugu Zelatungo txabola orain gutxi eraberrituetan, eta Hernioko azken pendizari aurre egiteko moduan jarriko dugu osteragorputza.

Herniora igo ostean atzera berriz Zelatunera jaitsi beharko garela kon-



Ezkerreko argazkian, Erdoiztako ermita zirkularra. Erdian, Errezil, Bidaniara doan errepidetik ikusita. Hurrengo orrialdean, Zelatungo lepoa eta Hernio, Gazume inguratzen duen xendatik.

tuan hartuz, eta ibilbide zirkularra osatu nahian ahal den heinean, bide arrunta jaitsierarako utzi eta zuzenean igotzea proposatzen dizuet, ertzetik joanez. Behetik ezinezkoa dirudien arren, xenda bihurri bat badago, harkaitz artean gora egiten duena. Horretarako, zuzenean belardian gora egin beharko dugu –malda gogorra eta bidez kanpo–, harkaitzaren oinera iritsi arte. Zirrikitu bat badago, eta bertan xenda arrastoak aurkituko ditugu, kairn bakar bat edo beste aurkitzeaz gain. Malda gogorra gaundituta gailurreriarira iritsiko gara, eta Hernioko gurutzea

gertu sumatuko dugu, nahiz eta bertara iristeko oraindik ere lan pixka bat egin beharko dugun harri artean. Minutu gutxitan, Gipuzkoako gailurrik maiteenetakoa den Herniora helduko gara (1.072 m). Gurutze nagusiaz gain beste hamaika daude gailurrean. Gipuzkoa osoa gure oinetara izango dugu, baina bereziki Errezil, nola ez.

Zelatunera bide arruntetik jaitsiko gara, hainbat eta hainbat belau-naldik zapaldu duten xendari jarraituz, betiere Errezil begi bistan dugula. Zelatunetik Iturriotzerako bidea ere aski ezaguna da, hainbat

eta hainbat mendizale eta txangozalek behin eta berriz zapaldua. Ez dago bertan galtzerik. Antzinako bide klasiko batean gaude, izan ere: GR34 bidea, Donostia eta Arantzazu batzen dituen, Zelatunetik igarotzen da eta Iturriotzerainoko bidea ibilbide luze honetako margo ikur zuri-gorriak jarraituz osatuko dugu, bideaz gozatuz betiere.

Iturriotzen ermita bat eta baserri erraldoi bat aurkituko ditugu, XVI. Mendekoa. Han ere gau bat igaro omen zuen Loiolako Inaziok, Parisetik Azpeitira zetorrela. Iturriotz, Etumeta... Pausoka-pausoka erro-

Errezildarren ateraldiak liburutik hartutako pasarteak

Galarra-saletxeko Bartolo da beste fenomeno bat izana. Garai batean Landetan bazkaltzen zuen beti, apopilo. Beti prezio jakina ordaintzen ohituta zegoen nonbait. Menuaren prezioa igo egin zuten garai hartan, baina Bartolok beti bezala bota zuen hamar eurokoa. Bordatxoko Anak esan dio:

– Aizu, Bartolo, ezta ailatzen!

–Eon haina lasai, bultza-ko´zeonat-eta –diruari bere aldera bultza eginez.

Beste behin, zerbitzaria lanean iritsi ezinda zebilen tabernan eta Bartolo adarra nondik joko. Bero-tu zaio zerbitzaria:

– Mundu hontan danok gaituk amaik eindakuak, e?

– Ni ez –Bartolok.

– Hi ez? Hi zeinek eindakua haiz ba?

– Amak ez, zaharrena naun-ta. Ni jaio arte ez huanan ama, hua ni jaiotakuan ein huanan ama. Aurretik neska edo nahi denana izengo huanan, baina ez ama.



mes-bidea osorik ari gara deskubritzen ia nahigabe...

Erdoizta

Ibilaldiaren azken txanpa geratzen zaigu, zatirik ezezagunena eta erakargarriena. Berriz ere Etumetara itzultzeko lehenbizi Iturriotzetik Granada Errekako zulora jaitsiko gara, ibilgailuak ere ibil daitezkeen pistari segika, galtzeko aukerarik gabe. Pendiza latza da, eta altuera erraz galduko dugu kilometro gutxi-tan. Granada Errekako zuloan, Iñaki Eizmendi *Basarri* jaio zen baserritik igaroko gara, berriz ere malda gogorrari aurre egin baino lehen. Gipuzkoako ermita zirkular bakanetakoa den Erdoiztako ermi-

tara igotzea dagokigu jarraian, paraje ezezagun, ahaztu eta magikora. Luis Pedro Peña Santiago mendizale eta etnografo handiak honelaxe dio, *Paseos por Guipúzcoa* liburuan, Erdoiztari buruzko pasarteak: “Erdoiztara joan egin beharra dago. Bertan hiltzen da errepeidea, plaza-ren erdian, beste inora joan gabe. Errezilgo auzo honetako kaskoa ermitak eta bi baserrik baino ez dute osatzen. Gure herrialdeko paraje ahaztua da, paraje berria, existitzen ez zela uste genuen baina bertan dagoen Gipuzkoa bateko zati... Eguraldi txarrarekin gustatzen zait niri Erdoizta, behe-lainoak Indoko mazelak estaltzen dituen egunetan, eta hezetasunak pagoeta-

ko hostoak distirarazten dituenean, horiek baitira Erdoiztak bere indarra erakusten dizkigun egunak...”

Paraje erakargarria eta misterio-tsua denik, behintzat, ezin uka. Gipuzkoako txoko ahaztu hauetan osatu dugun ibilaldi ahaztezina osatzeko, Erdoizta eta Etumeta batzea baino ez da falta, errepeidez bizpahiru kilometro ibiliz. ■



Bisita-tu
Ihesi.com,
aisialdirako
webgune parte-
hartzailea.

CuadraBus

www.cuadribus.com

☎ 945 890 804 / 670 477 727 · Faxe: 945 892 215
info@cuadribus.com


ellaURI HOTELA

KILO TERDI TXOKOA
Kilo t'erdiko txuleta
Legatz-solomoa plantxan
(6 pertsona gutxienez, aurretik deituta)

Altzusta 38, 48144 ZEANURI
+34 946 317 888 | ellaURI.com

Natura sentitu

Ozono geruzako zuloa normala izan da aurten



AZKEN 30 URTEOTAN, garai honetan gertatzen da Antartikan ozono mailaren jaitsiera. 80ko hamarkadan detektatutako egoerak alarma guztiak piztu zituen nazioarte mailan eta harrigarria bada ere, berehalako neurriak hartu ziren.

Ordutik geroztik abuztuaren amaieratik urriaren erdira bitartean Antartikan gertatzen dena arreta biziz aztertzen da, izan ere, hango atmosferan gertatzen dena ongi ulertzen ez denez, galdera asko zeuden eta daude erantzuteko, eta azkar gainera, Lurreko gaine-rako lekuetan gauza bera gertatzea nahi ez bazen.

Hori dela eta, ARGIAN azken urteotan

garai honetan Antartikan gertatzen denaren berri eman izan dugu. Aurtengoari dagokionez, iazkoa baino handiagoa izan da ozono geruzako zuloa, baina batez bestekotik hurbil. Beraz, ozono zuloak kontrolpean segitzen duela esan dezakegu. ■



Nolakoa da Voyager zundekiko komunikazioa?

1977KO IRAILAREN 5EAN espazioratu zuten Voyager 1 zunda, eta urte batzuk geroago Voyager 2. Zunda horien zeregina espazioan urruntzea eta posible bazen eguzki sistematik ihes egitea da. Horretan ari dira, bata gugandik 19.000 milioi kilometrorra baitago, eta bestea 15.000 milioi kilometrorra.

Orduko 60.000 kilometroko abiaduran bidaiatzen ari diren bi zundek seinaleak bidaltzen dizkigute etengabe, eta horiei esker hainbat datu biltzen ari dira ikerlariak. Baina nola bidaltzen dira seinaleak? Zein motatakoak dira? Noiz arte izango da posible seinaleak bidaltzea?

Seinaleak 1977. urtean ezagutzen ziren frekuentzia handienetako irratihinak dira. Bidalketarako oso energia gutxi behar dute zundek eta Lurrean hiru lekutan jasotzen dira. Zenbat eta urrunago egon, orduan eta zarata gehiago ailegatzen zaigu seinalearekin batera eta beraz, zailtasun handiagoak izango dira. Bestalde, bateriak eguzkiaren energiari esker birkargatzen dira, baina eguzki-sistematik irtetean hori ez da posible izango. Orduan, zer? Bi aukera daude: edo akabo, edo beste izar batetik hartuko dute behar duten energia. ■



Altxerriko margoak, Europako zaharrenetakoak

Altxerriko leizeko goiko gale-rian dauden margoak C-14aren metodoaren bitartez datatutako zaharrenak dira European, *Journal of Human Evolution* aldizkarian argitaratutako artikulu baten arabera.

ttiki.com/55284
(Euskaraz)

Asma izateko aukera birramonak egindakoaren arabera

Los Angelesko Biomedikuntza Ikerketa Institutuko zientzialari talde baten arabera, haurdun dagoen emakume batek zigarroak errez gero ondorioak hirugarren belaunaldietaraino luza daitezke. Batez ere, biriketako arazo kronikoak sor daitezkeela diote —asma esaterako—, edo arnasa hartzeko eragozpenak.

ttiki.com/55285
(Gaztelaniaz)

Bakterioen eta itsas korronteen arteko elkarrekintza

Ozeano Barean, Peru eta Txile artean, urak ia oxigenorik ez duen eremu bat dago. Hortxe bizi diren bakterioak bertako ura eraldatzen ari dira etengabe, nitrogenoa kantitate handitan sortuz. Horrek, besteak beste, karbono dioxidoa xurgatzea zailtzen du. Arabiako itsasoan antzeko zerbitu gertatzen dela detektatu dute.

ttiki.com/55286
(Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Lizar gozoa

ODERITZEN “harmena” deitzen zaio besakada batean bildu daitekeen hostoz jantzitako adar multzoari. Izen mordoa du ihartu eta neguko bazkatarako jasotzen zen azao horrek. Gari, belar, adar, egur... eskuta guztientzat izen bertsuak erabili izan dira. Eskuta eta eskuda, eskukada eta eskuera gogora dakartzkidate, eta eskuera esateko harmena erabiltzen da. Eskua eta har daitekeena, sortak sortzeko uztarri polita.

Mendian, bide ertzetan eta etxe inguruetan batik bat lizarra aldatu izan da harmenetarako. Erabilera ugari du mirarizko zuhaitz honek: itzala, hosto jatena, zura, tximistak uxatzea... *Fraxinus excelsior* izenak ederki adierazten du. Neuk ere beti aldamenen nahi dut; etxe aurrean ditudan bakanetako bat bera da.

Lizarra ez den zuhaitzaren adarrak ere jaso izan dira negu gorriko bazkatarako; haritza (*Quercus robur*), adibidez. Arabako Badaia eta Arrato aldean lizar loreduna (*Fraxinus ornus*) ere erabili izango zuten. Lizar bitxi hori orain edo-

nongo lorategitan edergarri topa badezakegu ere, itxuraz naturala, berezkoa, hor bakarrik da gure herrian. Gaur. Lehen auskalo non ez zen biziko giro mediterraneoaren zale amorratu hau.

Lizar arruntak ez bezala, udaberrian loreak ikusgarriak ditu, urrutetik ikusgarriak, alegia. Hark hostajearekin nahasteko moduko lore berdeak dituen eran, honek petalo laruz jantzitakoak. Hori gutxi balitz bezala, loreak ez ditu banaka erakusten, tente-tente antolatutako multzo-buru handietan baizik.

Lizar honi “mana zuhaitza” deitzen diote kultura ugaritan: frassino da maná italieraz, *manna ash* ingelesez, *fresno de mana* gaztelaniaz, *manna-ask* suedieraz eta danieraz, *manna-esche* alemanez. Euskaraz ez dugu manarik nonbait... Manatzat hartze hau zaurietatik isurtzen duen izerdiaren gozoagatik datorkio. Mana biblikoarekin duen konparaketa honen lehen dokumentua XV. mendekoa da. Gose zen jendeak azalean pikoak ebaki, eta azukrea, ahoko zulora! Gaur egun, labana zorroz-



JEAN-POL GRANDMONT

Fraxinus ornus, lizar loreduna.

tu eta azukre hau eskuratuz gero, mana ez, gutizia litzateke, zenbait sukaldari zuri-ederrentzat gorena. Azukrea manosa da, eta hark ematen duen alkohola manitola. Hurrengo udaberriko izerdiarekin likoreren bat egingo al dugu? ■



JAKOBA ERREKONDO



Usurbilgo Artaburuenea

Urtero bezala espaloi ertzetan eta biribilguneetan lore apainak ematen dituzten landareak jartzeko sasoia iritsi zen. Gure herrian loreak jartzeko dirurik ez, itxuraz. Lur muttur horiek nolabait bete behar eta lorezainek baratzeko eta soroko landareak erein: kuiatxoak (*Cucurbita pepo*), artoa (*Zea mays*)... Ez dakit aukeraketa nork egin zuen, baina udaletxe aurrean arto saila jarri dute. Uda honetan ahoz belarri dabilen txantxa udaletxeari “Artaburuenea” deitzea da. Txantxa guztiek bezala egiatik ere badu bere puska. Gure paisaia kulturala osatzeko pipermin (*Capsicum* sp.), zerba aukera (*Beta vulgaris*) eta abar jarri beharko dute aurrerantzean. Negurako “Artaburuenea” atarian jartzeko egokiak: azak (*Brassica oleracea*) azaostopekoa deitzeko, arbiak (*Brassica rapa*) arbiburutegi... Onena pikondo bat (*Ficus carica*) jartzea betiko, erabaki guztiak pikoepokoak izateko. ■

Roland Garros, tenisaren gainerik

HISTORIC WINGS



Roland Garros (1888-1918)
abiazioko aitzindari eta gerrako
pilotu izan zen, baina haren izena
tenisarekin lotzen dugu.

SAINT-DENIS (REUNION UHARTEA), 1888KO URRIAREN 6A. Roland Garros jaio zen, frantziar abiazioko aitzindari nagusietakoa. Ikasketak Sailyen eta Parisen egin ondoren, 1909an monoplano bat gidatu zuen lehenengoz, eta hurrengo urtean hegazkin pilotu lizentzia eskuratu zuen.

Berehala markak hausten hasi zen. 1911n munduko altitude errekorra hautsi zuen (5.610 m), eta 1913ko irailaren 23an Mediterraneo itsasoa geldialdirik gabe zeharkatzen lehena izan zen, Frantziako hegoaldetik abiatu eta Tunisiaraino. Hurrengo urtean Lehen Mundu Gerrak eztanda egin zuen eta Garrosen abilezia baliatzea erabaki zuen frantziar armadak.

Roland Garrosek aireplanoentzako metrailadore sistema hobetu zuen, etsaiari modu eraginkorragoan erasotzea ahalbidetzen zuena. Eta hobekuntza hori guduan gauzatu zuen, alemaniar hegazkinen aurka hainbat garaipen lortuz. Baina 1918ko urriaren 5ean Ardenneko guduan bere hegazkina eraitsi zuten eta Roland Garros hil egin zen, 30 urte betetzeko egun bat eta gerra amaitzeko hilabete falta zela.

Abiazioari egindako ekarpenengatik, Reunion uharterko aireportuak Roland Garros du izena. Hala, pilotuaren izena bere pasioarekin lotuta geratuko zatekeen betiko, 1927an tenislari frantziarrek AEBei Davis Kopa irabazi izan ez baliote. Hurrengo urtean, errebantxa Frantziako lurretan jokatuko zen. Norgehiagokaren garrantzia medio, Frantziako gobernuak hiru hektarea eman zituzten Frantziako Tennis Federazioaren instalazio zaharren alboan estadio berria eraiki zezaten. Gobernuak doan eman zuen lur saila, eta trukean baldintza bakarra eskatu: estadioari guduan eroritako pilotu gaztearen izena jarriko zioten. Gaur egun, Roland Garros munduko lur zapalduko tenis torneorik garrantzitsuenak da.

Zenbait iturriren arabera, Roland Garros gaztea tenis-zalea zen, eta Parisen ikasle ibilitako garaian Federazioaren pistetan kirol horretan aritzen omen zen. Errugbia ere gustuko zuen eta Parisko Stade Français taldeko kidea izan zen. Kontuak kontu, haren izena beti egongo da gaztetako zaletasun haien eskutik, eta ez hotsandira eta heriotzara eraman zuen grinari lotuta. ■



Arrastoak

Samotraziako Garaipena diru eske

MARIA VALIENTE



PARISKO LOUVRE museoko pieza enblematikoenetakoa, *Samotraziako Garaipena*, zaharberritzen hasi dira. Lanak 2014ko ekainean amaitzea aurreikusten dute, baina lau milioi euroko aurrekontua osatzeko milioi bat falta dutenez, *crowdfunding* sistema-ra jotzea erabaki dute arduradunek.

www.louvresamothrace.fr webgunean edonork egin dezake zaharberritze lanetan laguntzeko diru ekarpena (dagoeneko helburuaren %20tik gora lortu dute). Webguneak, gainera, zaharberritze lanen nondik norakoak xehetasunez jarraitzeko aukera ematen du. ■

MAÍRTÍN Ó MUILLEOIR

«Datozen 10 urteetan Belfasten 30 harresi bota nahi ditugu»

Belfasteko alkatea da iragan ekainaren 3tik. Sinn Feineko alkatea. Ez da alderdi horretako lehena baina, alderdi unionisten hainbeste urtetako nagusitasunaren ondoren, oraindik ere berezia egiten da. Datorren urteko ekainera arte izango da alkate. Bere leloa: “Etorkizuneko Belfast eraikitzen -elkarrekin”. Donostiako bake gailurrean izango da urriaren 11n.

TESTUA ETA ARGAZKIAK:

| XABIER LETONA |

Donostiako Udalak urriaren 10 eta 11n antolatutako Nazioarteko Konferentzian izango da Máirtín Ó Muilleoir, 53 urteko Belfasteko alkatea. Lau alderdi nagusien artean urtero txandatzan dute kargua. 1987 eta 1997 artean ere izan zen zinegotzia Belfasteko Udalean. Belfast Media Group Taldeko kudeatzailea ere bada, baina alkate garaian utzia du kargu hori.

Zein mezu eramango duzu Donostiako Bake Konferentziara?

Bakekintzari dagokionez, Europan gaur egun dagoen gai garrantzitsuenetakoa da Euskal Herrikoa. Nik elkartasun mezua eraman nahi dut eta gure laguntzarik handiena eskaini. Belfasteko alkate moduan, bake esperantza, elkarbizitza eta oparotasun nahiak eraman nahi ditut Euskal Herrira. Gatazka armatuaren amaiera gauza ona da Euskal Herriarentzat eta bakea lantzeko aukera ona eskaintzen du.

Zure ustez zein gai dira bereziki zaindu beharrekoak bake prozesu baten hastapenean?

Oso garrantzitsua da lidergo onak izatea, esate baterako Otegi [Arnaldo] batek izan dezakeena modukoa. Jendearen konfiantza duten liderrak behar dira. Eta jakina, negoziazioa-



“Mendeetako gatazka bizi izan dugu eta oraindik gure hamabost urteko bake prozesua nerabe bat bezalakoa da, zaindu eta babestu beharrekoa”.



“Alde bietan dago bake prozesuaren aurkako jendea. Hori ulergarria da, baina ez dut uste horrek inori biolentzia erabiltzeko eskubiderik ematen dionik”.

ren bestaldean bakea landu nahi dutenak ere behar dira; baina bada-
kit Madrilgo jarrera ez dela izaten
ari gure kasuan gobernu britainia-
rrak izan zuena. Halako prozesue-
tan denek izan behar dute zer iraba-
zia eta hori lortzeko oso
garrantzitsua da lidergo sendoak
izatea.

Autodeterminazioaren gaia ere
oso garrantzitsua da eta, gainera,
eskaera justua da. Prozesuaren
laguntzaileak ere behar dira eta guk
izan genituen, bai Irlandan, bai
Erresuma Batuan eta baita AEBet-
an ere. Funtsean, Martin Luther
Kinge esaten zuena da garrantzi-
tsua: bide baketsuekin, gogor saia-
tuta, gure ametsak eta helburuak
bete daitezke. Bilatzen dutenek
topatzen dute.

**Zuen kasuan, presoen gaia oso
garrantzitsua izan zen prozesuaren
arrakastarako.**

Bai, oso garrantzitsua izan zen eta
uste dut zuenean ere hala izango
dela. Presoen askatasuna oso
garrantzitsua izango da, espetxetik
ateratzean euren ekarpena egin ahal
izango dutelako eta bake prozesua-
ren alde egin, beren familien artean,
lagunekin, herrietan... Gurean gil-
tzarri izan zen bake prozesua arra-
kastatsua izateko.

**Urte hasieran eta udan istilu larriak
izan ziren Belfasten errepublikar eta
unionisten artean. Oraindik ere esan
dezakegu normalak direla halakoak
edo zerbaiten erakusle dira?**

Euskal Herriko jendearekin hitz egi-
ten dudanean, azken bi urteetan zen-
bat arazo dituzten aipatzen didate.
Bi urterekin, zuen prozesua haur jaio
berri baten gisakoa da, baina konpa-
raketa horretan gurea gazte bat da,
eta oraindik arazo asko ditugu. Bai

**“Zerbait blokeatzen
bada esan nahi du
dagokion gaiari beste
toki batetik heldu behar
zaiola”**

lehen eta bai orain, bake prozesua-
ren aurkako jendea egon badago,
haiek eroso bizi dira gatazkan, baina
gure artean esperantza eta begirune
zubiak eraiki behar ditugu eta bakea
lantzen jarraitu. Azken finean, ziur
izan behar dugu batzen gaituena
banatzen gaituena baino garrantzi-
tsuagoa dela. Banderak, desfileak,
sinboloek –Lord tituluaren erabilera
adibidez– banatzen gaituzte...
beraz, batzen gaituzten gaiak eta
esparruak jorratu behar ditugu.

Bai, egia da, oraingoan gatazka
handiak bizi izan ditugu, baina ez
da hildakorik izan, eta lehen halako-
ak zirenean hildakoak izaten ziren.
Ni gaztea nintzenean egunero hil-
dakoak ziren egunkarietan. Badaki-
gu min handia jasan duen jendea
dagoela, prozesua bakerako aukera
bat da eta gogor ari gara lanean
berau aurrera ateratzeko. Hitz egi-
nez alde guztiak ados jarriko garela
uste dut.

**Ostiral Santuko Akordioetatik hama-
bost urtera Richard Haass estatuba-
tuarra duzue bitartekari lanetan.
Hainbeste denbora eta gero oraindik
behar duzue bitartekaritza?**

Bai, jakina, zergatik ez? Horretara-
ko daude lagunak. Mendeetako
gatazka bizi izan dugu eta oraindik
gure hamabost urteko bake proze-
sua nerabe bat bezalakoa da, zaindu
eta babestu beharrekoa. Gure
kasuan, Barack Obamak argi ikusi
zuen berak ere heldu behar ziola
gure gaiari eta Haass bidali zuen, eta
hau, azken finean, tunelaren bukaer-
an argi apur bat jartzen saiatzen ari
da. Nik ere [txantxa ukituarekin],
2040an berriz Donostiara gonbida-
tuko banindute, ez nuke arazorik
izango bertara joan eta behar
denean laguntzeko.

**Euskal Herrian alderdi espainolistek
ez dute entzun nahi ere bitartekariei
buruz. Haien zat, bitartekariak gataz-
ka bat dagoela esan nahi du eta ez
dute horrelakorik onartzen.**

Bai, ez dute gaia nazioartera eraman
nahi, Espainiako mugen barruan
mantendu nahi dute.

**Irailaren 12an Amnesty Internationa-
lek txostena kaleratu zuen gatazkako
biktimei buruz eta esan zuen orain
arte egindakoa negatiboa zela. Erre-
suma Batuko Gobernua eta Ipar
Irlandako alderdiak egiten ditu
horren errudun. Non egon da aka-
tsa?**

Gogoratzen dut txostena atera
zutela, baina orain ez dut buruan
esaten zuen guztia, berriro begiratu
beharko nuke. Baina badakit giza
eskubideen esparruan Gobernutik
ez dugula behar beste egin. Long
Kesh espetxea dagoen eremua, adi-
bidez, bota egin behar zen eta

Amerikarren bitartekaritza oraindik ezinbesteko

Belfasteko Udala. Udalak 51 zinegotzi ditu eta azken udal hauteskundeak 2011n egin ziren, ondoko emaitzekin: Sinn Fein 16, DUP 15 (Alderdi Unionista Demokratikoa), SDLP 8 (Alderdi Sozialdemokrata eta Laborista), APNI 6 (Ipar Irlandako Alderdien Aliantza) 6, UUP 3 (Ulsterreko Alderdi Unionista), eta besteak 3. Azken 25 urteetan Sinn Feinek bikoiztu egin ditu bere zinegotziak. DUPk ere bai eta galera handiena UUPk izan du.

Richard Haass. Barack Obamak Ipar Irlandarako jarritako ordezkaria da eta bertako alderdien artean bitartekaritza lanak egiten ditu. Ostiral Santuko Akordioak 1998an onartu baziren ere, alderdiek normaltasun osoz hartzen dute bere lana eta urte bukaerarako bitartekaritza txostena bukatua izan behar du. Peter Robinson Ipar Irlandako ministro nagusiak (DUP) adierazi duenez, ez da samurra izango emaitza egokiak izatea. Sinn Feineko Martin McGuinness da bigarren lehen ministroa.

Istiluak. 2012aren bukaeran Belfasteko udalak erabaki zuen Erresuma Batuko bandera egun berezietan bakarrik jarriko zuela, eta ez egunero. 1906tik bandera britainiarra egunero egon da jarrita udalean. Unionisten protesta handiak izan ziren eta kalean istiluak unionista eta errepublikar gazteen artean. Unionisten desfileak direla eta, aurtengo udan ere istiluak izan dira.

Erreferenduma. 2014ko irailean Eskozian izango den erreferendumaren arrastoan, Gerry Adams Sinn Feineko buruzagiak, urte hasieran adierazi zuen ez legokeela gaizki 2016an Ipar Irlandan erreferenduma egitea, 1916ko Irlandako Errepublikaren aldarrikapenaren mendeurrenean. Gobernu britainiarrak entzun ere ez du nahi halakorik eta alderdi unionisten artean, batzuek uste dute ez litzatekeela aukerarik txarrena, euren ustez, oraindik irabazteko moduan leudekeelako.

“Halako prozesuetan denek izan behar dute zer irabazia eta hori lortzeko oso garrantzitsua da lidergo sendoak izatea”

bakearen sinboloa izan behar zuen, baina gure desadostasunengatik, azkenean ez da lortu. Hori izan da orain arteko prozesuaren akatsik handienetakoa, ez dugula nahikoa egin biktimen esparruan. Beste adibide bat: langile protestanteen esparruaren hezkuntzan ere ez da nahikoa egin.

Prozesuan zehar, zeregin oso garrantzitsua entzutean datza eta Amnesty International oso kon-tuan hartzeko erakundea da. Azken finean, elkarriketa eta akordioen bidez egiten dugu aurrera eta, prozesu horretan, alde bakoitzak blokeo aukera du. Zerbait blokeatzen bada ezin da aurrera egin eta horrek esan nahi du dagokion gaiari beste leku batetik heldu behar zaiola. Errepublikar moduan, esan behar dut guk gauzak ondo egin ditugula, baina ez gara bikainak izan. Orain argi ikusten dut, nire lan nagusia emaitza positibo horiek lortzea da.



Udaletxe atarian zegoen neska taldea agurtu zuen alkateak: “Nongoak zarete?”, “Australiarrak”, haien erantzuna. Eta haiekin aritu zen berriketan apur bat.

Orokorretik Belfastera etorrira, zer egiten ari zara alkate gisa komunitateen arteko tentsioa baretzeko?

Unionistentzat oso gogorra izaten ari da azken urteetan Belfasten izan duten botere galera. Horregatik haiengana hurbiltzen ari gara, haiek ukitzeko, haiekin komunikatzeko. Gaur egun unionistak gutxiengoa dira Belfasten. Ni txikia nintzenean 30 zinegotzi ziren —akaso 35— alderdi bakarrean, eta gaur egun 50etik 21 dira hiru alderditan banatuak. Azken 25 urteetan botere handia galdu dute, beraiek zuten nagusita-

sun erabatekoa eta orain galera hau dramatikoa da beraientzat.

Horregatik, guk erakutsi behar diegu bake prozesu honen alde ari garela lanean. Eskatzen duten guztia ezin da egin, gauza askok banaketa dakarrelako, baina, adibidez, ekainaren 3an alkate ordezkaritza hartu nuenean ez nituen kendu hemengo sinboloak [erreginarene erretratuak eta britainiar sinboloek ari da]. Eta kendu ahal nituen. Gero egon nintzen Londreseko alkate Boris Jonsonekin bere bulegoan eta hark ez du erretratu bat bera ere ez.



“Presoen gaia gurean giltzarri izan zen bake prozesua arrakastatsua izateko”.

Baina, jakina, beste batzuk ere jarri ditut, esate baterako 1916ko Irlandako Errepublikaren aldarrikapenarena; edo tapiz zahar batean gaelikoz idatzita dagoen duela 1400 urteko poesia bat.

Ekimen ugarirekin ari naiz egunerokoan, denen nahiak kontuan hartuz eta guztiak bakearen erai-kuntzara gonbidatuz, hiriaren ongizateari begira funtsezkoa da eta.

Irakurri dut oraindik 30 harresi dau dela Belfasten katoliko eta protestante komunitateak banatzen.

30 harresi gutxienez, batzuek diote 60 harresi inguru direla. Ni estresatu egiten nau hainbeste harresik. Datozen hamar urteetan kenduko direla aurreikusi da, baina azkenean herriarren erabakia da kentzea ala ez. Herriarren segurtasunari begira eraiki ziren 1969an, baina gaur egun herriarrak banatzen dituzte eta Gobernuak botatzea du aurreikusia.

Jendearekin hitz egin behar da, hauek seguru sentitu behar dute. Ulertarazi behar diegu batetik bestera libre iragatea ona dela komunikazioa, kultura eta ekonomiarako. Harresi fisikoak bakarrik ez, burukoak ere bota behar ditugu, jendea oraindik ez dago prestatua eta gu ari gara lan hori egiten.

Eta Sinn Feineko alkate batek *lord* titulu britainiarra erabili du azkenean.

Dublinen ere erabiltzen dute eta Corken (Irlanda) ere bai eta ez da ezer gertatzen. Ni errepublikarra naiz, eta nire ustez herritar guztiak berdinak dira. Batzuek gustuko

“Badakit Madrilgo jarrera ez dela izaten ari gure kasuan gobernu britainiarrak izan zuena”

dituzte tituluak, nik ez, baina ez dut arazorik hori erabiltzeko.

Errepublikarren artean tentsiorik eragin du horrek?

Ez da arazorik egon, ez dut inolako tentsiorik ikusi. Martin McGuinness berak ere *Lord Mayor* titulua erabili zuen behin Twitterren nire lanaz ari zen batean. Beraz, ez dut inongo arazorik titulu hori erabiltzeko. Datorren urtean Belfasten hauteskundeak izango dira eta guk nagusitasuna izan dezakegu. Orduan agian berriz berraztertu beharko dugu sinboloen politika guztia. Gauza hauek guztiak hausnartu egin behar ditugu aurrera begira.

Seguruenik ez da oso esanguratsua, baina mugimendu errepublikar armatuen jarduna hazi egin da apur bat. Zer esan nahi du honek?

Alde bietan dago bake prozesuaren aurka dagoen jendea. Hori ulargarria da, baina ez dut uste horrek inori biolentzia erabiltzeko eskubiderik ematen dionik. Egon zaitezke prozesuaren aurka, eta hala ere zure ikuspegia eskaini eta ekarpena egin. Gatazka garaian besteko ahalegina egin behar dugu orain ere. Jende honekin eztabaidatzeko gaitasuna izan behar dugu, ez ditugu isolatu behar. Elkarrizketan sinesten dut, hitz egin dezagun haiekin eta lortuko ditugu emaitzak. Lortu behar dugu biolentzia iraganeko kontua izatea.

Irlandako erreferenduma dela eta, urte hasieran Gerry Adamsek aipatu zuen Ipar Irlandan 2016rako egin zitekeela erreferendum deialdia, 1916ko Irlandako Errepublikaren aldarrikapenaren mendeurrenean. Komeni zaizue hain azkar?

Irlandako iparraldeko nazionalistek ikusi dugu nola konpondu dugun gatazka. Alde horretatik, honek tentsioa sortuko badu, bada ez zait gustatzen. Baina bestetik, aukera emango liguke Irlandako batasunaz eztabaidatzeko, zer onura ekarriko ligukeen eta beste gauza asko. Eskozian ari dira horrekin guztiarekin eta Irlandan ere honetaz guztiaz jardutea oso positiboa litzateke. ■




www.argia.com/multimedia



Bideoak

Elkarriketak, erreportajeak eta albisteak formatu arin eta azkarrean astero.



Diaporamak

Soinu naturalez, azalpenez ala musikaz girotutako argazki muntaia berritzaileak.




Argazki galeriak

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenerako.



Ekitaldiak

Hitzaldi eta ekitaldi interesgarriak klik batean eta euskaraz, baita nazioartean emandakoak ere.



Film laburrak

Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.



Dokumentalak

Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpitoluekin.



Solasaldiak

Gai zehatzei buruzko eztabaidak, hitzaldiak eta mahai-inguruak, gogoetarako material gisa, euskaraz.



Bideo herrikoiak

Euskal Herrian jendearen ekimenez egindako bideoen biltokia.

Erabilera suspertzeko lider bila dabilta Batz-en

“Euskarak Batz-en gaitu” dute lelo Batz Kooperatiban (Igorre, Arratia). Euskaraz lan egiteko plana daukate martxan 2000. urtetik. Enpresa handitzen hasi zenean ekin zioten euskara planari, kanpotik zetozen beharginek euskaraz lan egiteko ohiturarik ez zutela ikusita. Orain, euskaraz jardutea eragingo duten langile liderren bila dabilta.

| MARIJO DEOGRACIAS |

LAN MUNDUA EUSKALDUNTZEKO Adierazpena egin zuen publiko Kontseiluak ekainean. Batz kooperatibako euskara batzordeko kide Karmelo Uriarte han izan zen. Efermeride hori gogoratu dugu Igorreko (Bizkaia) Batz kooperatiban egin dugun hitzorduan. Bilkura hartan, Uriartek gogoratzen duenez, ados zetozen gehienak esaten “euskara enpresetan bigarren mailako gai legez” izan dutela. Alegia, “kontzientzia hartu behar dugu, euskaraz berdin-berdin komunikatu daiteke enpresa barruan; langileek euskaraz egingo dute aukera duten artean, baina enpresan langileentzako erreferentzia direnak ere euskaraz aritu behar dira”. Horretaz ohartuta dabilta 13 urtean Batz kooperatiban. Orduan hasi ziren euskara planarekin. Harrezkero, egoera dezente aldatu dela aitortzen du Uriartek. Erabat barneratuta daukate “lehenengo berba euskaraz” dela. Hala dator jasota Batz-eko harrera planean. “Hona datorenen guztia euskaraz artatzen da, berak esango digu ez digula ulertzen”. Bere iritziz, horrelako jarduerak ezinbestean bultzatu behar dira enpresan ere. “Kontzientzia egon dadin, ohitura egon dadin, euskaraz lan egiteko. Zergatik ez?”.

2000. urtean Elhuyar Aholkulartzarekin hasi ziren euskalduntze plana lantzen. Euskara batzordeak, hau da beharginek, erabakitzen zuten zein abiadura eman prozesua-



BATZ EK UTZIA

Batz kooperatibak automozio eta energia alorrerako piezak egiten ditu. 50 urte bete ditu aurtan. Argazkikoak euskara batzordeko kideak dira.

ri. “Kontuan izanda industria arloko enpresa garena, kezkatako bat hain justu zera zen: ia zenbat denbora eskaini beharko geniokeen prozesu horri gure lanorduetatik; baina jendeak hasieratik ulertu zuen bage-nuela zeregina”. Horixe gogoratzen du Uriartek hasierako hartatik. Baina, zergatik ekin zioten Bizkaiko eskualde euskaldunenetako enpresa baten, beharginen %70 euskalduna izanik, euskara planari? “Konturatu ginen jende berri asko sartzen ari zela beharrean. Gehienok Arratia bailarakoak ginen ordurarte, baina kanpotik zetorren jendea zenbat zen ikusita, horrek zela eragingo zuen pentsatzen hasi ginen, eurentari-

ko asko ez zirelako euskaldunak, edo ez zetozelako inguru euskaldunenetatik eta ez zeukatelako lanean euskaraz jarduteko ohiturarik”. Tailerrean euskaraz lan egiten zen, hortaz, langile berriak ere giro horretara ohitu zitezten, hizkuntza paisaia lantzen hasi ziren, eta errotuluak euskaraz erabiltzen hasi ziren.

Hurrengo aldian, kontratazio oinarrietan hizkuntza irizpideak kontuan izatea adostu zen. Orduan pres-tatu zuten Euskararen Politika Orokorra, EPO. Gaur egun, euskararen gutxieneko ezagutza maila izatea bermatzen dute, lanpostuaren arabera. Hiru urtero egin izan duten ezagutza mailaren neurketak dioenez, Batzen



Miren Madariaga Ahize-AEK-ko aholkularia eta Karmelo Uriarte euskara batzordeko kidea.

ari diren %70ak euskararen gutxieneko ezagutza dauka.

Enpresara praktikak egitera doazen ikasleen kasuan ere, ikasketak euskaraz egiten ari direnak izaten saiatzen dira. Igorreko Lanbide Heziketako ikastetxearekin eta Derioko ikastetxearekin akordioa daukate. MU eta EHUKo ikasleen kasuan ere “ahalegintzen gara euskaldunak izan daitezen karrera amaierako proiektuekin datozenak. MUK, esaterako, euskaraz egiten diren karrera amaierako proiektuak diruz laguntzen ditu, eta gu saiatzen gara ikasle horiek izan daitezen gureru datozenak, karrera amaierako proiektuak euskaraz izan daitezen sustatzen laguntzeko”.

Enpresen elkargunea

13 urtetan aurreratu dena erakusten duen beste adibide bat da euskara planak dituzten beste hainbat enpresarekin osatutako elkargunea. Hiru hilean behin batzen dira Igorreko Batz, Ajangizko Maier eta Zornotzako Ekin kooperatibak. Berritxuko Cikautxo eta Zamudioko Matreri ere hastekoak dira esperientzia trukaketan. “Batzuetan badirudi zure txikitasunean ez duzula ezer egiten edo ezer lortzen, baina bilera horietan, perspektiba apurtxo batekin aritzen gara eta balio digu ohartzeko zer nolako urratsak egiten ditugun, eta xumeak izanagatik ere, balekoak izaten zaizkigula euskararekiko kontzientzia eragiteko”, dio Uriartek.

Erronka berriak

Ahize-AEK ari da gaur egun aholkularitza lanetan. Miren Madariaga da ordezkaria eta azaldu digunez, ebaluazio prozesuan murgilduta dabilta, lanbide bakoitzean zer nolako ezagutza beharko litzatekeen zehazteko, erabileran gehiago nola eragin definitzeko. “Ikusten genuen Batzen, eta batez ere enpresa giroa euskalduntzen aritzen garenon artean, lidergoa behar izaten dela aurrera egiteko. Euskararekiko sentsibilitatea badaukaten pertsonak eragin dezakete euskararen erabileran urratsak ematen eta horregatik garrantzitsua deritzogu enpresak era horretako lidergoa izan dezaketen pertsonak identifikatzea, eragileak izatea azken batean”, gehitu du Uriartek.

Bide horretan, hizkuntza kudeaketaren inguruko formazio saioak egingo dituzte urrian, “hau moduko euskaldun giroan euskararen balio erantsiaz jabetzen laguntzeko”. Azaroan, berriz, euskararen lidergoa lantzeko hiru lan saio egingo dituzte, erabileran eragiteko.

Horrekin batera, euskara ikastaroetan izena emateko matrikulazio kanpainan murgilduta dabilta. Eskolak enpresan bertan ere ematen dira eta, batez beste, 14 bat ikasle ematen du izena. ■



M. D.

VITORIA
GASTEIZ
green capital

Gasteizen euskarazko hauek ez galdu

GOZATU EUSKARAZ liburutegietan!

Sarrera: 1€

ARANA

Mundipurdiko ipuinak
Maite Franko ipuin kontalaria
Urriak 16, 17:30
3-5 urte (heldu batekin)

ARIZNABARRA

Bertsolharitza
Ibai Esoain ipuin kontalaria
Urriak 17, 18:00
5-11 urte

HEGOALDE

Faustinarekin Munduratzuz
Eneko Etxebarrieta (antzzeria)
Urriak 17, 18:30
4-7 urte

IGANDEAN JAI, familia giroan euskaraz

> Antzokiko Istorioak

Urriak 27, Zabalgana eskola
17:00: Antzokiko Istorioak JAKIN eta JOLAS
18:00: Lantegia

MINTZALAGUNA

> Mintzlaguna

> Gurasolaguna

> Gaztelaguna

Matrikula: urriaren 1etik 21era
Internet bidez: www.mintzalaguna.com
Aurrez aurre: Gizarte-etxeak, AEK, IKA,
NON: Udaberria eta Hegoalde euskaltegiak,
Mondragon Lingua, Bai & By, Hizkuntza Eskola,
Euskharan Kultur Elkarte eta Mintzalagunaren
bulegoa (Rogelia de Alvaro elkartearen etxea,
Panama kalea 14, C eraikina 1.1 bulegoa)

> Arabako Mintza eguna

Urriak 19, Gasteizen Gizarte etxetan

PRINCIPAL ANTZOKIA

> Kepa Junkera eta Ara Malikian Kontzertuan.
Urriak 18, 20:30

BERDINTASUNA eta jabekuntza

> Jendeaurrean hitz egiteko teknikak

Emakumeentzako ikastaroa
Izen-ematea: irailak 9- urriak 31

BADU, BADA erakusketa

IGNACIO ALDECOA kultura etxean
(Florida parkean)
Urriaren 17tik urte bukaera bitartean
Astelehenetik larunbatera,
09:00-13:30 eta 16:00-20:00
Ostegunetan, bisita gidatuak
Ekintza gehiagoren berri:
www.badubada.com

Maite duzun hura, euskaraz!



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

20 urteko zauri iluna

Zumaiarrek Txato eta militante-kideek Anuk deitzen zioten. Xabier Kalparsoro Golmaio 26 urteko gaztea poliziaren eskuetan hil zela 20 urte bete ziren irailaren 26an. Haren heriotza ilunaren atzean urteak beste zalantza daude. Egiaz, kontakizunaz eta zoru etikoaz mintzo den herri honetan osatu gabeko zaurien kate luzearen beste adabegi bat.

Testua eta argazkia:

| AXIER LOPEZ |

TXATOREN BIZITZA ez da izan Euskal Herrian azken 50 urteetan hainbat eta hainbat gazte militanteren ibilbidearen oso bestelakoa. Gazte-tarik Zumaiako borroka anitzetara lotu zen, institutuko ikasle garaitik hasita. Jarrai gazte antolakundean Gipuzkoa mailan ardura politikoak izan zituen eta liberatuta aritu zen urte luzez. 17 urterekin lehen aldiz atxilotu zuen Guardia Zibilak. 25 urterekin, sabotaje ekintza bat tarteko, polizia atzean zuela Ipar Euskal Herrira ihes egin zuen. Han egin zen ETako kide.

1993ko maiatzetik aurrera

Uda horretan Hego Euskal Herrira igarotzean Gasteizko taberna batean Jarraiko kide ohi batekin topatu zen. Berarekin izandako elkarrizketan atxiloketa luze batetik atera berria zela adierazi zion. Lagun horrek hitz hauekin adierazi zion poliziari Kalparsororen egoera: “Aurpegia guztiz itxuragabetua zuen eta eskuak azal bizian. Ertzaintzak atxilotu zuela esan zuen. Denetarik egin ziotela, baita drogatu eta ondoren libre utzi ere”. Hurrengo egunean lagun horrekin beste zenbait lagun pisan bazkaldu zuen. Beso eta hantetan zituen harramazkez galdetuta ahozapi bat hartu eta ondorengo idatzi ei zuen artega: “Ordu luzez sasi artean izan naute, ez dut horretaz hitz egin nahi”. Segituan metxeroa hartu eta su eman zion ahozapiari. Handik ordu batzuetara Ertzaintzak Laudion Anuk izeneko errefuxiatu bat atxilotu zuela jakitera



Xabier Kalparsororen oroitarria Zumaiako labarrean.

eman zen. Egunkariek hala argitaratu bazuten ere, polizia guztiek ukatu zuten. Hurrengo egunean Txatok Sansomendin Guardia Zibilak duen kuartelera deitu zuen nor zen esanez. Han inork ez zion sinetsi.

Laudio, Durango, Indautxu eta Basurtu

Uztailaren 13an Laudio inguruko mendietan ETaren zulo bat aurkitu zela zabaldu zen. Hil horren azken egunean, Espainiako Polizia Kalpar-

sororen bila azaldu zen bere etxean. Ez zuten bertan aurkitu.

Irailaren 23an Durangoko udaltzaingoa, Zumaiako udaltzainekin

Mediku batek familiari adierazi zion tortura zantzu ugari atzeman zizkiotela

MARCOS
okindegia

Benetako aitzinako ogia

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

harremanetan jarri zen eta azken hauei esker jakin zuen Kalparsororen familiak Xabier atxilotua zegoela, lapurreta leporatuta. Familiarekin ez zuela hitz egin nahi “mozkor antzean, burutik joanda bezala zegoelako” moduko datu kontraesankorrrak eman zizkieten. Familia Durangora gerturatu eta epailearen aginduz Bilboko Indautxura eraman zutela esan zieten. Indautxura hurbiltzean erantzun zitzaizkien Basurtuko ospitalera eraman zutela, Xabierrek berak hala eskatuta. Han bai, ospitalean zen, baina ezin izan zuten ikusi. Izan ere, hil arte koman emandako 2 egunetan familiari bisita galarazi zioten, poliziak ezarritako inkomunikazio egoeraren izenean. Xabier han zela erizain bati esker jakin zuten.

Bertsio ofiziala

Poliziak gaur arte Kalparsororen heriotzaz emandako azalpena sinple bezain bitxia da: Indautxuko polizia-etxeko 2. pisuko gelan atxilotuta zegoela, berarekin zen polizia lurrera bota eta leihotik behera salto egin zuen. Erorketaren ondorioz hil zen.

Guda zikina edo tortura susmoak izan diren gainerako kasu gehienetan bezala, ugariak dira bertsio ofiziala zalantzan jartzen duten gertaerak (ikusitako koadroa).

Justizia bide antzua

Torturaren Aurkako Taldeak, Zumaia Udalak eta Kalparsoro familiak egindako salaketak artxibatu egin zituen Bilboko Instrukzio Epaitetik Maria Soledad Alejandre Demenech epaileak. Bide judizialak orain arte utzi duen bakarria 1995ean izan zen. Bizkaiko Auzitegiak Indau-

Frogek utzitako bestelako bertsioa

- Esposatuta zegoen. Hil ondoren ere esposen markak nabariak ziren.
- Terrorismoaren aurkako lege zorrotzaren neurri guztiak ezarri zizkieten. Neurri horiei muzin egin eta leihotik behera salto egitea oso zaila da.
- Basurtuko mediku batek familiari esan zion tortura zantzu ugari zituela.
- Autopsia egin zuen auzitegiko medikuak idatzi zuen ezinezkoa zela Kalparsororen heriotza salto baten ondorioa izatea. Gorpua hormatik gertuegi zegoen eta beraz, erorketa inpultsorik gabekoa izan zen
- Basurtuko erizain baten arabera, “ez nazazue gehiago jo” oihukatu zuen ospitalean zela onera etorri zen momentu batean.
- Urriaren 7an, Kalparsorok ETako zuzendaritzari igorritako eskutitzak argitaratu zituen *Egin* egunkariak. Testu horretan abuztuaren 30etik aurrera Laudion poliziak atxilotu, mendira eraman eta zenbait egunez bahituta izan zutela azaldu zuen Kalparsorok. Poliziak emandako droga baten ondorioz burua erabat galduta eduki zutela aditzera ematen zen. Egun horien ostean libre utzi eta Ertzaintza atzetik izan zuela idatzi zuen.
- Audio inguruko zenbait herritarrek bailarako mendietan poliziaren presentzia handia izan zela adierazi zuten, Kalparsorok eskutitzean bahituta izan zela dioen egun beretan.
- Durangoko abokatu batek Kalparsororen amari adierazi zion Durangoko udaltzainen komisaldegitik ertzainak, guardia zibilak, Espainiako poliziak, militarrek eta zerbitzu sekretuetako kideak azaldu zirela. Poliziaren arabera kaptazio lanak egiten zituen ETako kide arrunta izanik, neurritz kanpoko mugimenduak, edonola ere.

txun zaintza lanetan ziren bi guardia zibil zigortu zituen, Kalparsorori leihotik behera salto egitea ez galarazteagatik. Gaur arte inork bete ez duen 6 hilabeteko espetxealdia izan zen zigorra. Izan ere, Espainiako Auzitegi Gorenak falta soil batera murriztu zuen epaia.

Txatoren familiak Gasteiz, Estrasburgo edota Bruselara jo badu ere, orain arte ez du egia osoa jakiteko laguntzarik jaso. Horrek Xabierren heriotzak familian sortutako mina urteetan luzatzea besterik ez du ekarri. Espero dezagun, Ajuria Eneko itunaren garaian gertatutako

pasarte ilun hau argitzeko aurkitu diren oztupoak atzera ere ez errepi-katzea, PSE eta EAJ berriz elkartu diren garai hauetan.

Bien bitartean, Deabruak Teila-tuetan taldeko kideek abesten zuten bezala, “bertsio ofizialik sinesten ez duen herriko” lagunek aukera izan dute egunotan, Txatoren erraustak hartu dituen labarrean, egia eta justizia exijitzeko. ■

argia.com *Begizta.net* blog-ean gaiari buruzko loturak eta *Anuken egia* dokumentala ikusgai.



XABI & PETTI Bidean - LP/CD	NEIGHBOR Ura Patrikan - CD	LOS GALERNA Akelarre - LP/CD	CAPSULA Solar Secret - LP/CD	BIDE ERTZEAN 77 - CD	GAZTELUPEKO HOTSAK WWW.HOTSAK.COM
NORMAN Perkins - LP	LA JODEDERA Karibe Kantauri Kantari - CD	GASTEIZ BIG BAND Wellington - EP	DEZEN BLUES BAND Groovin' the Blues - CD	IGOR ARZUAGA Experience - CD	

Errabal, 23 - 20590 SORALUZE
tel. +34 943 753 016
fax +34 943 750 139
gaztelupeko@hotsak.com

Holakoak eta Holakoak

GAU- BERANDUAN

*Eraldatu egiten dira paisajeak
gau-beranduan. Eder zena
beldurgarri bihurtzen da eta
beldurgarri zena eder.*

PETTI
HARKAITZ CANO
JOXAN GOIKOETXEA

Azaroak
18

19:00etan

Antzoki Zaharra
Donostia

Salmenta: leihatila eta
www.kutxasarrerak.net



A&M KULTUR
PROMOTORA
619421153

 **argia**



Hezkuntza ministroa kezkatuta, txinatarren %30ek ez dakielako mandarinera

TXINAKO Hezkuntza ministroak adierazi du 400 milioi txinatarrek ez dakitela mandarinera, alegia Txinako Estatuko hizkuntza ofiziala. Hezkuntza Ministerioak berak onartu du dakitenen artean ere askok ez dutela ondo hitz egiten.

Alderdi Komunistak hamarkadatan mandarinera bultzatu du alderik alde, herrialdeari batasuna emateko. Ez du lortu ordea bere nahia, herrialdea ikaragarri handia delako eta hezkuntza sistema osora iristerik izan ez duelako. Bestalde, mandarinera jatorrizko hizkuntza ez duten komunitateek aurre egin diote Txinako agintarien batasun nahiari, haien nortasuna eta kultura galtzeko bidean direla argudiatuz.

Txinako agintariek txinatar edo hans hizkuntzen hiztunak (kantonera, ganera, hakker, min nana, wuera, xiangera...) eta gutxiengo nazionalak bereizten dituzte, hau da, Txinakoak ez diren hizkuntzen hiztunak (koreera, kazakera, mongoliera, uighurera, tibetera, yao- era, yia, zhuangera...).

Familia giroan norberak bere hizkuntza erabiltzeko oztoporik ez du jartzen Txinako Estatuak, baina gune formaletan, hezkuntzan eta komunikabideetan adibidez, mandarinera baino ez du onartzen. Badira salbuespenak ordea, hizkuntza gutxitu batzuetako hainbat komunitatetan, baldin eta autonomia duten lurraldeak badituzte, haien hizkuntza koofizialtzat hartzen da.

WWW.LAVANGUARDIA.COM



Balearretan TIL ereduaren aurka

Igandean, irailak 29, milaka lagun kalera atera ziren Palman, Balear Uharteetako PPren Gobernuak ezarritako TIL ereduaren kontra. Katalanezko murgiltze eredu batzertu eta gaztelania, katalana eta ingelesa neurri berean irakastea da Gobernuaren nahia. PPK adierazia du TIL ereduari esker katalanaren inposaketa bukatuko dela eta ingelesak ikasleen etorkizuna bermatuko duela. 90.000 lagun inguru bildu ziren TILen eta hezkuntza murrizketen kontra egiteko.

EKONOMIAREN TALAIA • TERMOMETROA

Murrizketek hil egiten dute

NAZIOARTEKO IKERKETA BATEN ARABERA (*Datorren bost urtetan lan merkatuan dauden aurreikuspenen gakoak*, Randstad Workmonitor) Espainiako Estatuko hamar langiletik bederatzik uste du “duela bost urte baino gehiago exijitzen dietela”, baina lanpostua ez galtzeko %94k dio “bere laneko baldintzak asetzeko edozer egiteko prest” dela. Emaiza horiek egoera dramatikoaren erakusgarri dira, lanpostua galtzeko beldurrak langileak behartzen ditu euren osasuna kaltetzen duten lanak egitera, bizitza arriskuan jartzeraino. Kontu jakina da arlo ugartan egindako murrizketek bizkorrago lan egitera behartu dituztela langileak; prekarietatea eta lan baldintzen kaskartzea ekarri du horrek. Lan osasunarentzat kaltegarria da (depresioak, gaixotasunak, suizidioak...) eta bizitzarentzat ere bai, lan-istripu hilgarriek erakusten duten gisan.

Hala, ez da kasualitatea Euskal Herrian azken hiru asteetan lan-istripuetan zortzi langile hil izana, bestalde, langabezia zegoen pertsona batek bere buruaz

beste egin du. Bistan da murrizketen ondorioz gehiago eta segurtasun gutxiagorekin lan egiten dela, jende asko prekarietateak harrapatuta baitago. Bistan da murrizketek hil egiten dutela. Bistan da kapitalismoak eta bere erreformek hiltzen dutela. Bistan da jasotako mandatuarekin itsututako gobernuak ere konplizeak eta hiltzaileak direla.

Gobernuek benetan jendartearen zerbitzura egon nahi badute –horretarako jaso zituzten botoak– ezin dute Kapitalaren aginduetara egon, ikusi dugun bezala, gaixotasunak, suizidioak eta lantegietan heriotzak eragiten dituelako. Hori eragozteko, gobernuek erreformak egin beharko lituzkete gehien dutenengandik diru-sarrera gehiago eskuratzeko. Jendarteari iruzur egingo ez dion erreforma fiskalari ekin, enplegu duina sortzen lagundu eta herri-tarren ongizatea mantendu. Hori da egin beharko luketena.

Juan Mari Arregi



‘Cybersyn’, Allendek abiarazi nahi zuen Internet sozialista

1973ko irailaren 11n Augusto Pinochet jeneralak jotako estatu kolpeak eten zuen Salvador Allende buru zuela Txileko ezkerak abian zeraman iraultza demokratikoa. Kolpeak hil zuen Cybersyn ere, ekonomia nazionalizatuko enpresak, langileak eta agintari politikoak informazio sarean lotzeko helburuz antolatutako sistema informatikoa.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

ASKO GALDU ZUEN TXILEK 1973AN –irailaren 11n bete dira 40 urte– AEBetako Gobernuak disimulu handirik gabe lagunduta militar faxistek kolpe batekin eten zutenean Salvador Allende buru zuen sistema sozialistarako bide demokratikoa. Dozenaka mila herritarren heriotza, beste milaka askoren atzerriaritze eta miseria, libertate ororen zanpaketa basatia, ekonomia neoliberalaren ezartze gordina, kultura basamortutzea...

Augusto Pinochetek desagerrarazi zuen esperientzia berezi bat oroitarazi dute egunotan zenbait hedabidek. Britainia handiko *Red Pepper* aldizkari ezkertiarrean Leigh Phillipsek “Allende’s socialist internet” plazaratu du, *The Guardian*en Andy Beckették “Santiago dreaming”, Madrilgo *Eldiario.es*en Angela Prechtek “Proyecto Cybersyn: los revolucionarios cibernéticos de Salvador Allende”. Istorioaren protagonistak dira batetik Allende buru zuten politikari eta militante txiletarrak, eta bestetik Stafford Beerren inguruan bildutako teknikari txiletar eta britainiarrak.

1970ean Santiagoko gobernuaren jabe egindakoan Txileko ekonomiarentzako hil ala bizikoak ziren hainbat enpresa nazionalizatu zuen Allendek. Meatzaritzako konpainiak AEBtako multinazionalen ken-

durik Txileko estatua egin zen haien jabe. Nekazaritza erreforma ere ezarri zuen legez. Laster aurkitu zen Santiagoko gobernuaren enpresa horiek guztiak ondo kudeatzeko arazoei. Horiez gain, sindikatuen eta ezkerrearen nolabaiteko kontrolpean zeuden beste konpainia asko, langileek okupatuak, kooperatiba bihurtutakoak eta beste.

1970ean 29 urteko Fernando Flores jarri zuen Allendek konpainia nazionalizatuen eta Estatuaren arteko koordinazioaren buru. Flores eta bere aholkulari Raul Espejok ezagutzen zituzten Stafford Beerrek enpresen gestiorako informatikan erakusten zuena eta kontratatzea proposatu zuten.

Santiagoko agintaritzatik gero eta neke handiagoz koordinatzen zen informazio eta konpainia anabasa hura antolatzeko, Beerri eskatu zioten Txilen antolatu zezala berak *The Brain of the Firm* (Konpainiaren burmuina) liburuan *Viable System Model* (VSM) bataiatutako sistema: “Sistema bideragarria da inguru aldakor batean bizirauteko beharrezko aldaketak baimentzen dituen antolamendua”.

Paul Cockshott irakasleak laburbildu duenez, Beerren *Cybersyn*ek lagundu zezakeen kapitalismo osteko planifikazio ekonomikoan, zeren “esperimentu horren abantaila han-

Zgeek guneak erakusten du gure arteko informatika aditu eta zaletu burutsuek eza-gutu beharreko irudia: Txileko Santiagon La Moneda jauregian Salvador Allende presidente zela *Cybersyn* (gaztelaniaz *Synco* izenez ere ezagutua) sistemaren bihotza izan behar zuen kontrol gela. 1973ko irailaren 11n Pinochet jeneral faxistak estatu kolpea eman baino egun gutxi lehenago estreinatu zuten. Argazki txikian –*Vanilla Beer* gunetik hartua– ageri da Stafford Beer (1926, 2002) irakasle ingelesa, artikulu eta liburu askoren egilea, tartean 1966an argitaratu “*Decision and Control*” eta 1974ko “*Designing Freedom*”. Estatu kolpeak Txilen demokrazia eta sozialista usaina zuen ororekin batera *Cybersyn* suntsitu zuenean, Beer, ordura arte auto garestien eta luxuaren maitalea, dena saldu eta Galesko etxe txiki batera erretiratu zen, kudeaketa informatikoari buruzko liburuak eta poesiak idaztera.

dia zen diseinaturik zegoela unean bertan funtzionatzeko (*real-time system*) eta ez Sobiet Batasunean egiten zuten moduan erabakiak bost urtean behin hartuz”.

Urte beteren buruan, 1972an finkatuta zeukaten sistema berriaren lehen urratsa. Aurreko gobernuak erosi eta bazterrean lagatako 500 teletipo (telex) kokatu zituzten fabrika banatan, Santiagon zeukaten IBM 360 ordenagailu zentralari loturik. Esperimentua hasi zen.

Deszentralizatuta, arinago

Cybersyn proiektuak helburutzat zeukan egunero enpresa bakoitzetik bidalitako informazioarekin epe laburreko aurreikuspenak egitea, hobekuntzak proposatzeko. Lau mailatan antolaturik (enpresak, alorak, sailak, dendak), sareak *Opsroom* operazio gela nagusian bildutako arduradunei ahalbideratzen zien emaitzak eztabaidatu eta plan orokorrak egitea.

Opsroom haren argazkia da kronika honen irudikoa. Hexagono formako sala bat, paperik gabe, informazioa pantailetan azalduz, zenbakiak ez baina grafikoak erabiliz, zazpi jarleku futurista bakoitza botoi oso gutxiko tresneriaz hornitua... Gaur edozein langabetuk etxeko salan dauzkan tresnok garai hartan fikzio-zientziazkoak zirudi-



ten. Bauhaus eta Gestalt mugimenduetan ikasia zen Gui Bonsiepe diseinatzaile italiarrak asmatuak ziren.

2013an plazaratu den “*Revolucionarios cibernéticos. Tecnología y política en el Chile de Salvador Allende*” liburuan Eden Medinak elkarrizketatu ditu esperientzia parte hartu zutenetako asko. Medinak kontatu duenez, Allenderen gobernuak bezala Beer ingeniariak ezarri nahi zuten sistema Kuba eta Sobiet Batasunaren inguruko herrialdeetako eredu txit zentralizatutik ihesi zihoan.

Beerren Sistema Bideragarrien Ereduan (VSM) proposatzen da gorputz batean burmuinak erabaki garrantzitsuak hartu bai baina dena kontrolatzen ez duen moduan, sis-

tema bideragarria osatu behar dela autonomia maila handiko atalez. Txileko gizartearen nerbio sistema elektronikoa antolatzea bezala, nazio mailako komunikazio sare batean elkarri loturik egon zitezten. Honek aurrerantzean herritarren arteko berdintasuna sustatzen lagundu behar zuen, hortik Leigh Phillipsen “*Allende’s socialist internet*” definizioa.

Allende berehala usaindu omen zuen proiektuaren garrantzia. 2002. urtean hil aurretik Beerrek azaldu zuenez, “plan tzarra osorik Sistema Bideragarrien Eredu osoarekin batera dena batean esplikatu nion; ordura arte sekula lan egin gabea nintzen nik proposatutakoaren hitz erdia ulertzen zuen inorekin”.

Baina Allende mediku patologoa zenez, berehala harrapatu zuen Beerren ereduak sakonean bazeukala biologiaren goi arnasa. Dio Eden Medinak *Cybersyn* asmoa zehazten joan ahala Allende bera asko saiatu zela proiektuaren alde politikoak sendotzen, sistema izan zedin deszentralizatua, obreroen parte hartzeari irekia eta burokraziaren kontrakoa.

*Cybersyn*en fruitu praktikoen artean beti nabarmentzen da Txileko gobernu ezkertiarri zenbat lagundu zion eskuindarrek eta CIAk xaxaturik merkatariek eta kamioilariak 1972an bi aldiz antolatu zioten greban. Herritarren eguneroko otorduak zeudenez arriskuan, enpresetan kokatutako 500 teletipoei esker koordinatu ahal izan ziren elikagaiak zeuden biltegiak eta gobernuarekiko leial jarraitzen zuten 200 kamioilariak, krisiaren eraginak goxatuz.


Leigh Phillipsen idatzi du *Cybersyn* izan zela kapitalismoaren osteko gizarte baten adibidea, herritarrei agintea eskuratzeko bidea irekitzen ziena. Aldiz, gaztelaniazko *Wikipedian* proiektuaren sarrera idatzi duenak dio: “Bere garairako sistema aurreratuegia zen horrelako lanabesak erabiltzeko ohiturarik gabeko sistema sozial batean erabili ahal izateko”.

Protagonistetako batek, Fernando Floresek, esan omen zuen: “Zibernetikak ahalmen mugatua dauka norbait zu hil nahian dabilenean”. *Cybersyn* ere txirtxilatatu zuten militarrek 1973ko irailaren 11n. ■



ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Xabier Letona



DANI BLANCO

Kontakizun bakarraren ondorioak

ALDERDI EGUNA 2013, jeltzaleen festa handia, batez ere lotu beharrekoa lotua dagoenean. Normalizazio politikoa bere bidea egiten ari da, baina oraingoz molde zaharrean, EAJ-PSE-ren akordioarekin, ez ETaren ondorengorako pentsatzen zen molde berrian. Oraingo hau krisiaren gerizpeko akordioa da, gizarte ereduari buruzko adostasunak, ia maila guztietan, desadostasunak baino askoz handiagoak direnen artean.

Koldo Mediavilla EAJko heledunaren esanetan, alabaina, jeltzaleek EH Bildurekin lotu beharko lukete orain autogobernuari buruzko akordioa (ARGIA 2384. zkia.). Alderdi Egunaren bezperan egindako Madiavillaren adierazpenek irribarre samurra piztu dezakete, baina bide soberanistaren ardatza eratzeko beste biderik ez dagoela aitortu beharko zaio politikari bizkaitarrari. Samur ez, baina EAJk bere unea bilatzen badu, eman ditzake urrats garrantzitsuak. Hor daude Lizarra-Garaziko garaia eta Ibarretxe plana, adibide gisa eta ez oso urrutit gainera.

Seguruenik, hainbat baldintza beharko dira horretarako: bat, ekonomiak lagundu behar du hemen Espainian baino gehiago; bi, beharko du baita ere alderdi barruan ikuspegi soberanista konplexurik gabe eta indarrez landuko duen belaunaldi gazte eta zabala. Artur Masen CDCn, adibidez, hori gertatu da azken 15 urteetan. Eta batez ere, hemen oraindik ez dagoen herritar mugimendu soberanista indartsuaren bultzada eta sostengua ere beharko ditu. Katalunian CiUri gertatu zaion bezala.

BAKE ETA GATAZKA doinuak nahastuko dira urriari Euskal Herrian. Munduko hainbat alkatearen mezu gazi-gozoen oihartzuna barreiatuko da Kontxako Badian eta, hala ere, hilabete gogorra izango da. Gatazka hotsen burrunba Donostiako bakearena baino ozenago iritsiko da: Madrilen ia 80 euskal herritar epaituko dituzte Auzitegi Nazionalean (urriaren 14tik aurrera Segiko auzian eta 17tik aurrera Herriko Tabernen auzian), noiz eta ETak bere jardun armatua utzi eta bi urtera.

Bortizkerian bizi eta armak behin-betiko isiltzen diren beste herrialde batzuetan negoziazio mahaiak eratzen badira, hemen tori makro-epaiketak eta sarekadak, egia eta justizia batzordeen orde. Ofizialki gatazkarik ez bizi izanaren kontakizunaren ondorioak dira. Eta hedatzekotan, euskal gizartearen etorkizunerako gatazka-aren hazia barreia dezakeena berriz.

Bake prozesu ia guztietan bada amnesia prozesurik, eta horietan estatuen biktimak dira ahaztuenak

Baina ikuspegi baikorragorako tarterik ere bada, batez ere Jonan Fernandezek Jaurilaritzako zirrikietatik azarorako akordioetara iristeko aukerarik ikusten badu. Honek temati jarraitzen du oinarritzkoa den gaiarekin: biktima guztiek maila bereko tratamendua behar dutela azpimarratzen.

Ez zaio arrazoirik falta horretaz asko dakien Fernandezi eta zintotasunez dio gainera, baina biktimen senideen zorigaitzerako, bake prozesuetan ez da egia izaten. Bake prozesu ia guztietan bada amnesia prozesurik, eta horietan

estatuen biktimak dira ahaztuenak. Borondate ona egon den lekuetan ere hala da: Hego Afrika, Argentina, El Salvador... Ikusi orain Argentinako epaileari Espainiako torturatzaleekin gertatzen ari zaiona. Estradizioa eskatu eta Auzitegi Nazionaleko sarean harrapatua geratu da eskaera. Eta ez da askatuko. Zigorgabetasuna deitzen zaio horri.

Ipar Irlandan ere ahazten ari dira biktima asko. Gehien jota, Erresuma Batuak batzuetan onartu du Estatuaren errua eta kalte ordainak dirutan ematea, Derryko Bloody Sunday hilketen kasuan bezala. Horregatik, Ostiral Santuko Akordioak sinatu eta 15 urtera, iragan irailean Amnesty Internationalek gogor salatu ditu txosten batean gobernu britainiarra eta Ipar Irlandako alderdi politikoak: biktimen esparruan, eta egia eta justizia ardatz hartuta, orain arteko balorazioa negatiboa da.


ARGIAko zenbaki hone-tan bertan, Belfastko alkate jaunak horixe bera dio, bake prozesuan zerbait ondo landu ez bada, hori biktimen gaia izan dela. Joan eta galdetu Guatemala

edo El Salvadorreko armadek hildako milaka herritarren senideei biktimak lehen esparruan egon ote diren, gustura ote dauden haien egia eta justizia eskaerari eman zaien erantzunarekin. Joan Txile edo Argentinara. Ipar Irlandan, iragana miatzeko talde berezia dute polizia. Hemen, bitartean, eta kasurik onenean, Estatuaren ordezkariak uste dute Estatuko biktimei buruz Eusko Legebiltzarak iragan legealdian onartu zuena nahiko dela. ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Iriarte Jauregia

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Eliz-Bailara 8
Bidegoian GIPUZKOA

www.iriartejauregia.com

1



Bertsolari Txapelketa Nagusia

2 harpidunentzat
bina sarrera

Urriak 12, larunbata 17:30ean
Beltzenia ezker-pareta
Hendaia (LAPURDI)

www.bertsozale.com

2



Bertsolari Txapelketa Nagusia

2 harpidunentzat
bina sarrera

Urriak 13, igandea 17:30ean
Behar-zana pilotalekua
Altsasu (NAFARROA)

www.bertsozale.com

3



Ikasle Abertzaleak

25 urte
1988-2013

5 CD opari

www.ikasleabertzaleak.org

4



Kirolaz Badakit

2 mahai jolas

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2383. Argia)

BETSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA - Villabona

- Xanti Saizar Arostegi (Tolosa)
- Miren Iturrioz Guio (Andoain)

DONOSTIAKO AQUARIUMA

- Josu Martinez Martinez (Bilbo)
- Gotzon Bedialauneta Arrizabalaga (Iruñea)
- Xabier Allur Zunzunegi (Hernani)
- Juan Olalde Agirre (P. Antxo)

EUREKA! Zientzia Museoa

- Iñaki Arruti Landa (Lasarte-Oria)
- Ana M. Zubiarrearteria (Eibar)
- Joxin Iturriotz Ostolaza (Azpeitia)
- Pilar Otaegi Urruzola (Larraul)

ARTEZ EUSKARA ZERBITZUA Ikasle agenda

- Mari Jose Irizar Aranburu (Donostia)
- Idoia Ormaetxea Ireta (Durango)
- Redondo Jaun Andreak (Hernani)
- Asier Alvarez De Eulate Mujika (Ordizia)
- Koldo Elorz Leoz (Iruñea)
- Blanca Beitia Bengoa (Gasteiz)
- Mikel Leturiaga Gorrotxategi (Zarautz)
- Xabier Zuzuarregi Salaberria (Zizur Nagusia)

ILLIMANI

- Koldo Atola Kortajarara (Donostia)
- Izaro Sudupe Akluna (Azkoitia)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30



Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

gunea

argia





dokumentalak.com

Euskarazko dokumentalen biltegia sarean

Ostiralero lan berri bat ikusgai

Dagoeneko 130 dokumental eskura

Anuken egia
Arrhash, pozoina
Banlieues. Pariseko erreboltak
Basque hotel
Bidaia Intimoak
Botilen hilerria
CAN: Kutxa hutsa
Companys eta Agirre azken erbesterantz
Debekatuta dago oroitzea
Egunero
Egunkaria, hamar urte geroago
Elburua Gernika
Euskal Herria: Ezkutuko zorra
Euskararen jatorria: Enigma europar bat
Gudari baten egunerokoa
Haizea eta sustraiak
Insumisioa. 20 urte desobeditzen
Iparraldea XXI

Irakeko kurduak, bizitza bazterbidean
Iruña-Veleiako misterioa
Itoitz hustu arte
Itsasoren alaba
Langile autonomia
Leku hutsak, hitz beteak
Nire bizi osoa espetxean
Nömadak Tx
Oroitarria
Perurena
Pluja seca - Euri lehorra
Sagarren denbora
Sahara marathon
Salda badago
Santi Brouard. Euskal Herria Osagai. Duintasuna omen
The Yes Men fix the world
Tortura Euskal Herrian

...eta askoz gehiago

Zure lanen bat kanal honetan sartu nahi baduzu,
jarri gurekin harremanetan:

multimedia@argia.com

 www.twitter.com/dokumentalak

 www.facebook.com/dokumentalak

 **argia.com**

 **EGUZKI
BIDEOAK**

elkarlanean

